

ANALISI POLITIKOAREN OINARRIAK

Maddi Galdos Areta

2017-2018

AURKIBIDEA:

1. GAIA: Aztertzeko eredua, gizarte bilakaeraren teoria
 - Sarrera
 - Politikaren oinarriak
 - Gizarte bilakaeraren teoria (Sztompka)
 - o Agentzia teorien ekarpenak
 - o Soziologia historikoaren ekarpenak

2. GAIA: Agentziaren ingurunea, natura eta kontzientzia
 - Jarrera politikoa eta portaera politikoa
 - Jarrera politikoa
 - o Aurretiko jarrera politikoak
 - o Jarrera politikoaren tipologia
 - Portaera politikoa
 - o Estimuluak
 - o Kultura politikoa
 - o Gizarte kapitala
 - o Baloreak
 - o Ideologia politikoak
 - o Nortasun politikoak
 - Nortasun politikoak eta ideologiak
 - Ideologiak:
 - o Liberalismoak
 - o Sozialismoak
 - o Komunismoak
 - o Anarkismoak
 - o Faxismoak
 - o Nazionalismoak
 - o Ideologiak posmodernitatean
 - Gizarte mugimenduak
 - o Feminismoa

- Ekologismoa
- Antimilitarismoa eta bakezaletasuna
- Neoliberalismoaren aurkako mugimendu globala
- Suminduak, 15-M
- Eskuin mutur xenofobia
- Fundamentalismo erlijiosoak
- Indigenismoa

3. GAIA: Prozesu politikoaren eragileak

- Eragile politikoak
 - Ezaugarriak
- Ekimen kolektiboa
 - Azaltzeko teoriak
 - Hurbilketa klasikoa
 - Portaera kolektiboa
 - Gabetze erlatiboa
 - Hautaketa arrazionala
 - Baliabideen mobilizazioaren teoria
 - Mugimendu berrien ikuspegia
 - Ikuspuntu bateratu baterantz
 - Eragile kolektiboak ezberdintzeko
 - Ezberdintasunak
- Alderdi politikoak
 - Definizioa
 - Ezaugarriak
 - Funtzioak
 - Sailkapenak
 - Bilakaera historikoa
 - Ondorioak
- Presio edo interes taldeak

- Definizioa
- Ezaugarriak
- Sailkapena
- Presio taldeak zientzia politikoan
- Gizarte mugimenduak
 - Definizioa
 - Gizarte mugimenduen logikak
 - Gizarte mugimenduen demokratizazioa
 - Antagonismo agonistikoaren Locus-a
 - Demokrazia agregatua
 - Demokrazia deliberatzailea
 - Demokrazia agonistikoa
 - Demokrazia antagonikoa

4. GAIA: Politika publikoak eta gobernantza, politika emaitza gisa

- Polity, politics, policy
- Politika publikoak
 - Definizioa
 - Elementuak
 - Testuinguru berriak: ongizate estatua eta krisia
 - Politika publikoak: tresnak
 - Politika publikoen prozesua
 - Faseak pausoz pauso
 - Agendan sartzea
 - Erabakiak hartzea
- Gobernantza:
 - Definizioa
 - Abantailak
 - Gobernantza motak

Zientzia Politikoak definitzerakoan, boterea azaltzeko dugun arlo zientifiko eta akademikoa dela esaten dugu. Izan ere, politikaren muinean boterea eta beraren banaketa kokatzen dira. **Boterea** ulertzeko, bi modu ezberdin daude:

- Botere formala: egituretan oinarritzen dena
- Botere informala: mekanismo ikusezinetan oinarritzen da, ez egituretan

Honekiko, ekimen kolektiborako lehen pausoa kontzientzia hartzea da: hots, zapaldutako banako gehiago badaudela ohartzea.

POLITIKAREN OINARRIAK:

Azken aldian ohituta gaude pentsatzera politika gaur egungo errealitatera (markora) egokitu behar dela. Ordea, aipagarria da politika estrategia bezala baliatu daitekeela: horrela, errealitatean existitzen diren muga eta markoak gainditzeko.

“Fin de la historia” – *Fukuyama*. Ez da ideologiarik behar, dena demokraziaren baitan eman behar da.

Horretarako, aipagarria da, ekimen kolektiborako lehen pausoa zapaldutako indibiduoak kolektibo batek parte izatea dela, zeina botere harremanetan ematen den eraldaketa politiko bat litzatekeen.

Horrela,

- **Ezinezkoa posible bihurtu:** muga eta marko politikoak gainditzeko modua da politika

Hor dugu Kataluniako egoeraren adibidea. Bertako prozesuaren sustatzaileek gainditu egin dute estatu espainiarrak ezarritako markoa.

“La política aspira – aunque no siempre lo consiga – a poner las bases que permitan superar las necesidades y sufrimientos privados mediante la creación de leyes e instituciones que dan forma a la vida colectiva, regulan sus conflictos y desacuerdos recurrentes y configuran sus narrativas” (Arendt)

- **Menderatzearen aurre, boterea harreman gisa**

“La vida social se ve sacudida por la cruel competencia por el poder, por los conflictos y privaciones, por la violencia que siempre amenazan con destruir el espacio público” (Arendt)

- **Zatien batuketa, dena baino gehiago da**

La acción política revive de cuando en cuando, y gracias al recuerdo del ideal de la antigua polis, conservamos la visión de la libertad y la nobleza humanas como acción política participativa” (Arendt)

- **Eremu pribatutik eremu publikora igarotzea**

No se puede llamar feliz a quien no participa en las cuestiones públicas; nadie es libre si no conoce por experiencia lo que es la libertad pública y nadie es libre ni feliz si no tiene ningún poder, es decir, ninguna participación en el poder público (Arendt)

- **Politika berriak: despolitizazioa vs. birpolitizazioa**

GIZARTE-BILAKAERAREN TEORIA, Piotr Sztompka. AGENTZIAREN GARRANTZIA.

Sztompkak, 70.hamarkadan, teoria soziologikoak landu zituen. Eta bere *gizarte-bilakaeraren* teoriarekin, determinismoa ukatu zuen (hots, prozesuak bere emango direla eta errealitatea emanda dagoela dioen ildoan).

- Esan bezala, teoria honek aldaketa sozialaren determinismoak ukatzen ditu.
 - o Izan ere, Marxismoaren determinismoa oso sustraituta zegoen, eta Sztompkak honen aurka jo zuen.

Sztompkak, gizakiaren bi ezaugarri nagusi bereizten ditu:

- o Gizartea eta gizabanakoaren arteko tentsioa (egitura / ekintza); hots, individualismoaren eta kooperazioaren arteko tentsioa.
 - o Egonkortasuna eta aldaketaren arteko aurkakotasuna.
- Teoria soziologikoari kritika egiten dio; hots, alde batetik Durkheimen arazo estrukturalak zituen ardura, eta bestalde Weberren arazoak, individualismoa kasu. “Objektuaren inperialismotik, subjektuaren inperialismora igaro gara”.

Agentzia teoriak egindako ekarpenak: agentziaren teoriaren elementuak

- 1) Gizartea prozesu bat da, etengabeko prozesua: gizartea ez da elementu estatikoa, eta beraz, ezin daiteke elementu estatiko gisa aztertu. Hori metodologikoki gauzatzea oso zaila den arren, azpimarratu beharra dago gizartearen une jakin bateko argazki egonkor bat aztertzearekin ez dela nahikoa.

- 2) Aldaketa endogenoa da. Aldaketa soziala ez dator kanpotik edo ez dator determinatuta; hots, gizarte horren barruko dinamiken ondorioz sortuko da.
- 3) Aldaketaren azkeneko eragilea gizakien edo talde sozialen botere agentziala da.
- 4) Aldaketaren modua borroka (arlotan teoriko eta praktikoa) bihurtzen da. Hau da, aldaketaren ezaugarriak euren asmoekin bat egin dezaken elkarren artea borrokatzen dute agentziek. Hemen kontutan hartu beharko ditugu elementu ideologikoak eta portaera/balore indibidual edo kolektiboak, kultura politikoa eta abar. Hots, agente askoren arteko borroka bilakatzen da, zeinetan agenteek euren artean borrokatzen duten aldaketa horien ezaugarriekin beren balore eta ezaugarriekin bat egin dezaten.
- 5) Egiturek izaera bikoitza dute: determinatzailea eta determinatuak. Hau da, egiturek badute eragina gure bizitzan, ekimen kolektiboan eta gure ekintza politikorako antolatze moduetan. Ordea, gure izaerak eta talde soziopolitikoaren bidez, gure ere ezaugarri horiek eraikitzen ditugu.
- 6) Ekintza eta egituraren elkarrekin denboraren dimentsioaren barne gertatzen da. Honek sarrera ematen dio Soziologia Historikoari; hots, dimentsio historikoa azpimarratzen du. Honekin adierazi nahi dena zera da: aldaketa bat une jakin batean ematen bada ere, aldaketa hori aurretik izandako prozesu baten ondorio dela. Horrenbestez, ezin da aldaketa bat aztertu bere aurrekari historikoak ezagutu gabe.

Soziologia historikoaren ekarpenak:

- 1) Errealitate soziala ez da egonkorra, dinamikoa baizik. Análisi soziologiko eta politikorako garrantzitsua da azpimarratzea errealitate soziala *existitu* baino *gertatu* egiten dela.
- 2) Aldaketa soziala prozesu askoren ondorioa da. Hots, análisis politikoan garrantzitsua da aldagai dependente eta independenteak ezberdintzea.

- 3) Gizartea ez da sistema edo osotasun bat, baizik eta tentsioa, armonia, gatazka eta kooperazioen sare isurkorra (Zygmunt Baumant). “Bizitza likidoa” edo “Vida liquida”. (+ “la corrosión del character”).
- 4) Prozesu sozialak metakorrak dira. Dimentsio historikoaren baitan geratzen diren gauzak kultura politiko baten baitan pilatzen dira.
- 5) Prozesu sozialak giza agentziak sortutakoak dira.
- 6) Gizakiok sortzen dugu gizartea, baina iraganeko eraginarekin. Hots, ez dugu nahi dugun gizartea sortzen. Izan ere, historikoki jasotako testuinguru batean bizi gara eta hortik abiatuta eraikitzen dugu gizarte berri bat. Horrela, eraldaketa sozial oro testuinguru jakin batetik abiatzen da.

Piotr Sztompkaren teoria: Gizarte-bilakaeraren teoria


Orain arte Piotr Sztompkaren kezkak zein ziren azaldu dugu, orain azaltzera goazen teoriaren nondik norakoak hobe ulertzeko.

Honen esanetan:

- Aldaketa soziopolitikoak ulertzerakoan, errealitatearen bi maila hartu behar dira aintzat: osotasuna eta banakotasuna.
 - *Osotasuna*: elementu estrukturalak, fisikoak eta kulturalak. Ez du soilik estatuaren egitura hartzen aintzat; kultura politikoak, historiaren pisua, gizarte zientziak ulertzeko modua eta beste ere bai. Elementu fisikoez gain, beraz, sinboliko kolektiboak ere hartzen ditu barne. Osotasuna ez da, horrela, gugandik at kokatzen den zerbait; gure baitan dago.
 - *Banakakoa*: ez dio soilik maila indibidualari erreferentzia egiten; elkarrekin, taldeak, gizataldeak eta, oro har, gizartean sortzen diren taldeak barnebiltzen ditu.

- Bi modu bereizten dira: ahalmena eta eguneratzea.
 - *Ahalmena*: dagonena litzateke, existitzen dena. Ordea, potentzialitate bat dagoela azpimarratzen du. Kultura politikoak beste gauza batetan eraldatzeko duen gaitasuna, alegia. Gaurkotasunera pasatzeko prozesua.
Ikuspuntu estatiko batetik dagoena edo existitzen dena da (osotasunean eta banakotasunean), beste gauza batean eraldatzeko daukan prozesurako aukera aintzat hartuta.
 - *Eguneratzea*: Hala nola, langileriak (ahalmena) ekimen kolektiboa gauzatzen duenean geratzen dena; prozesuari egiten dio erreferentzia.

- Agente edo banakotasunaren maila *mobilizazio* bidez *eguneratu* edo *aktibatzen* dira. Horrela, aktibo edo mobilizatu gabe egon daitezke. Horrela, adibidez, mobilizazioaren bidez eguneratu egiten da ikasleon kolektiboa.
 - Mobilizazio hauek ulertzeko beharrezkoa da logika bertikal eta horizontalak aintzat hartzea: hots, ulertu beharra dago egiturak (osotasuna) gizartean dauden eragileen (agenteak) arabera eguneratzen direla, eta, era berean, eragileak (agenteak) gizartean dauden egituren (osotasuna) arabera eguneratzen direla.



Adibidea:

Estrukturak, osotasun mailan, dira daudenak. Ordea, horiek ere etengabe eguneratu edo aldatzen dira. Eraldaketa hori egokitzeko prozesuan, gauza asko gertatzen dira egituretan, maiz gu ohartu ere egin gabe. Holandan ia 3 urte igaro zituzten gobernu osatu barik. 3 urte horietan Holandako hainbat indikadore sozioekonomiko esanguratsu hobetu egin ziren gobernu barik. Hots, gobernurik ez zegoen baina estatuaren egitura eta funtzionamenduak martxan jarraitzen zuten.

	Ahalmena	Gaurkotasuna
Osotasuna	Estrukturak	Funtzionamendua
Errealitatea	Agentzia	Praxia
Banakokoa	Eragileak	Ekintza

Azaldu ditugun agenteen logika horiek ez dira existitzen. Izan ere, ezin dira ulertu agenteak estrukturarik gabe, ezta estrukturak agenterik gabe ere. Horrela, ez dira existitzen. Soilik errealitatea existitzen da.

- ***Errealitatea: tarteko maila hau soilik existitzen da, agentzia eta praxia.***

Oker gabiltza analisi politikoa agenteak edo estrukturak soilik aztertu nahi baditugu, beste mailak kontutan hartu gabe. Horrela, derrigorrez biak hartu behar ditugu aintzat. Soilik agentzia existitzen da, erdiko maila hori da existitzen den bakarra. Honekin Durkheim eta Weberren ikuspuntu mugatuak gainditu nahi ditu, eskema konplexu baina aberatsagoa eraikiaz.

- Hemen aintzat hartu behar ditugu errealitatearen maila ezberdinak eta errealitatea bizitzeko modu ezberdinak. Hau da, ahalmena eta eguneratzea.
- *Agentzia*: analisi politikorako eraikitzen dugu kontzeptu bat da, portaera politikoa hobe ulertzeko egiten dena. Horrela, eragileak bere testuinguru sozialean ulertu behar dira.

Agentzia = Eragileak + Estructura

Esan bezala, beraz:

Errealitate sozialaren mailak:

- Osagarriak
 - Osotasunak
 - Banakakoak
- Moduak
 - Ahalmenak
 - Eguneratzeak

	Ahalmena	Eguneratzea
Osotasuna	Estrukturak	Funtzionamentua
Banakakoa	Agente/Eragile	Ekintza


Tarteko maila: agentzia eta praxia

- Estructura funtzionamendua eta eragile ekintzetan analitikoki banandu daitezkeen arren, gizarte errealitatean
 - o Ez dago estrukturarik agenterik gabe eta ez dago agenterik estrukturarik gabe
 - o Halere, eragileak ez dira estructuretan desegiten, ezta estructureak agenteetan ere
- Horrela, ez dago errealitate agentziala ezta errealitate estructureala per sé
 - o Hainbat osagai nahasturik daude, eta gertaera sozialeak moldatzen dituzte
 - o Tarteko maila da errealitate sozialean modu substantzialean existitzen den bakarra

Gizarte bilakaeraren teoria:

Esan bezala, errealitatean erdiko maila hori soilik existitzen da; hots, agentzia eta praxiaren maila.

- Agentzia hau litzateke estructure eta eragileen arteko bitartekaritza.




Hemen:

- *Estructura bere funtzionamenduan hedatzen da:*
 - o Politikaren autonomia
 - Neo-instituzionalismoa
 - Estatu indarrak eta ahulak
 - Goi eta baxuzko ahalmenaren estatuak
- *Eragileak ekintzaren bitartez mobilizatzen dira:*

- Eragileen autonomia (Cohen eta Arato)
 - Defentsa dinamika gizarte zibilean
 - Eraso dinamika gizarte zibilean
- *Agentzia praxian eguneratzen da:*
 - Ekintza kolektiboa
 - Estrukturek eragileen eragiten diete
 - Eragileen estrukturei eragiten diete

Gizarte bilakaeraren teoriak osatzen duen eredia etengabeko prozesua da: hots, etengabe birsortzen den prozesua da.

Horrela, marko hori (bereziki erdiko maila aintzat hartuz) testuinguru baten baitan aztertu beharra dago. → hau da, prozesu politikoak aztertzeko garrantzitsua da begirada edo ikuspuntu dinamikoan pentsatzea; hots, prozesuak ziklo ezberdinekin identifikatu eta ez argazki finkorik sortzea.



Faseen arteko zatiketa hori burutzeak, errazago egiten du aldaketak antzematea. Baina, halere, subjektu politikoa beti aurreko ekarpenekin ulertu behar dugu.

Adibidea:

Agentea sindikatua bada, ezin da era berean ulertu industrializazioko fordismoan edo gaur egun.

Hainbat kontzeptu:

- *Jarrera politikoak*: estimulu politikoaren aurrean erantzuteko ekintzak dira.
- *Ideologia politikoak*: mundua ulertzeko eta ekintza politikorako ideia, sentimendu eta emozioen bilduma da.
- *Baloreen sistema*: gizartean ona edo txarra dena baloratzeko edota nahi eta beharrak nola sailkatzen ditugun zehazten du. Horrela, honen arabera epaitzen ditugu gauzak: epai moralak egiteko erabiltzen ditugu, askotan ideologiaz aparte egiten direnak.
- *Identitate politikoak*: ideologia gauzatzeko beharrezkoak dira, baita hauei egonkortasuna eta jarraikotasuna emateko ere. Gaur egun eztabaidan dago ideologiaren gaurkotasuna: askok baitiote ideologia politikoak identitate politikoetan integratu direla edota, zuzenean, desagertu egin direla.

JARRERA POLITIKOAK:

- ✘ Jarrera politikoak
 - + Aurretikoak
 - + Jarreraren tipologia

AURRETIKO JARRERA POLITIKOAK:

- Hauek ikasitakoak dira, ez sortzetikoak. Izan ere, sozializazio politikoaren bitartez barneratzen dira.
- Egonkorak dira: aldatu daitezkeen arren, nekez eta epe luzeetan.
- Ez dira agerikoak: eragileen portaeran identifikatu behar ditugu.
- Intentsitate ezberdinak daude.
- Beraien arteko korrelazioak daude, baita bateraezintasunak ere.


JARRERA POLITIKOEN TIPOLOGIA:

Objektu politikoaren aurrean hartutako orientazioak ezberdinak izan daitezke:

1. Orientazio **kognitiboak**: herritarrak ezagutzen duenari deritza; hala nola egoera, instituzio bat, ikurra ... Izan ere, jendarteak sistema politikoak ezagutzen duena hainbat mekanismoz filtratuta dago (hala nola, komunikabideak).
2. Orientazio **afektiboak**: pertsonaren erreakzio emozionalak
3. Orientazio **baloratiboak**: iritzi bat (ona/txarra, positiboa/negatiboa) objektuaren aurrean
4. Orientazio **intentsionalak**: joera zentzu batean edo bestean parte hartzen.

PORTAERA POLITIKOA

Estimulu baten aurrean sortzen den jarrera bat da.



Portaera politikoaren azaltzeko eskema.

ESTIMULUAK: SISTEMAREN OBJEKTO POLITIKOAK


Estimulu horiek hainbat motatakoak izan daitezke:

- Sistema politikoaren osagarriak:
 - o Arauak, prozedurak, legeak, eskubideak eta betebeharrak
 - o Instituzioak: gobernuak, parlamentuak, auzitegiak, estatuburuak, polizia ...
 - o Sistema politikoaren sinboloak: banderak, himnoak, jaiegunak ...
 - o Eragile kolektiboak, alderdiak, sindikatuak, interes taldeak, eliza, komunikabideak ...

- Liderrak eta buruzagi politiko profesionalak
- Sistemaren inputak: parte-hartze modu konbentzionalak (botoa, militantzia, iritzia ...) eta ezohikoak (protesta ekintza, okupazioa, biolentzia ...)
- Sistemaren outputak: politika publiko sektorialak, prestazio eta zerbitzu publikoak eta betebeharrak
- Prozesu politikoan duen posizioa (eragiteko gaitasuna)

Gogoratu:

Sistema politiko bat aztertzekoan hiru dimentsio edo une bereiz ditzakegu:



KULTURA POLITIKOA:

- Lehen izugarritzko garrantzia ematen zioten portaera politikoa ulertzeko, baina gaur egun, ez hainbeste. Dena den, garrantzitsua izaten jarraitzen du.
 - Kultura politikoa sistema politikoaren funtzionamenduaren oinarrian dago
 - Sistema politikoaren barruko ekintzak baldintzatzen ditu.
- Honi dagokionez, lehen ikerketa enpirikoa **Almond eta Verbarena** izan zen (the Civic Culture, 1970).

- La cultura política fue definida como el conjunto de orientaciones cognitivas (básicamente conocimientos y creencias), evaluaciones (opiniones y juicios) y actitudes (tendencias psicológicas que permiten a los individuos hacer valoraciones) que una población manifiesta frente a diversos aspectos de la vida política y el sistema político.
 - Kultura politikoak, objektu politikoarekiko taldeek duten orientazio kongitibo, afektibo, ebaluatibo (eta abarrari) egiten dio erreferentzia.
- Nazio bakoitzak kultura politiko bat du. Arlo zabala da, eta honen barnean identitate eta ideologia ezberdinak eraikitzen dira.
 - Kultura politiko motak:
 - Tokian tokiko kultura politikoak
 - Mendekoen kultura: kultura zibikoa (parte hartzea bai, baina mugatua)
 - Kultura politiko partehartzailea.

GIZARTE KAPITALA (Robert Putnam)

- Abiapuntua (Putnam, Inglehart, Almond-Verba): gizartean elkartzeko joera baldin badago (elkarte kultural, sozial eta abarretan), sistema demokratikoa eraginkorragoa izango da.
- Gizarte kapitalak giza kolektibo baten ahalmen edo gaitasun bati egiten dio erreferentzia; erkidegoaren garapenean (politiko, kultural zein ekonomikoan) eragin positiboa izango duten gizarte elkarreragineko prozesuak sortzeko ahalmenari, hain zuzen ere.
 - Gizarte kapitalak, zehazki, gizarte elkarreragineko harreman edo prozesu horietatik datorren balio kolektiboari egiten dio erreferentzia.
 - Gaur egun, gizarte kapitalak ikerketa berritzaileak garatzea ahalbidetzen du programa politikoetan (parte hartze politikoak gizarte demokratikoetan), ekonomikoetan (garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna) eta gizarte ongizatekoetan.

- Gizarte kapitalaren osagarriak:
 - Formala edo informala
 - Trinkoa edo ahula
 - Barrura begiratzen duena edo kanpora begiratzen duena
 - Zubiak eraikitzen dituen edo loteslea

BALOREAK: BALORE SISTEMA (Ronald Inglehart)

Moral eta etikarekin lotzen dira eta gauzak epaitzeko erabiltzen dira, hau da, ona edo txarra den jakiteko. Baloreen sistema epai moralak egiteko erabiltzen da eta batzuetan ideologiatik aparte egiten da, nahiz eta gai batzuetan ideologia nahasten den. Gure gizarteetan baloreen sistema aldatzen ari da.

- Balore materialistak.
 - Segurtasuna: Ejertzito indartsua, delinkuentziaren aurkako borroka, ordena mantentzea.
 - Iraupena: Ekonomia egonkorra, hazkunde ekonomikoa, prezioen garestitzearen kontrako neurriak.
- Balore postmaterialistak.
 - Asetze estetiko eta ezagutza intelektualak: Kalitate urbanoa, ideien balorapena, adierazteko askatasuna.
 - Identitatea eta autoestimua: Gizarte ez hain inpersonala, ahalmen gehiago lanean eta komunitatean, genero berdintasuna.

IDEOLOGIA POLITIKOAK

Mundua ulertzeko ideien, sentimenduen, emozioen eta abarraren bilduma, ekintza politikorako baliatzen dena.

Ideologia politikoak gizakiok eraikitakoak dira. Eraikuntza prozesu horretan elementu ezberdinak hartzen dira aintzat. Ideologia politikoen kasuan, berezitasuna, ekintza politikoaren helburu bezala izatean datza; hots, praktikotasunean.

- Barbara Goodwinen arabera, ideologia politikoak: "Giza-bizitza eta ezagutzari buruzko kontsideraziotan oinarrituriko doktrina bat da, gizartea eta botere politikoaren erakuntza ideal edo logikoa lortzeko asmoz".
- Sinesmen sistemaren osagarri nuklearra da; zeinetan dinamismoa, proselitismoa eta filosofia politiko zein teoria politikoei erreferentziak topatzen ditugun.
- Egonkortasun gutxiago baina kohesio gehiago (garrantzitsua ekimen kolektiborako)
- Besteen ezagutza eta besteekiko lehia eta oposizioan, gizaki eta taldearen arteko artikulazioan, *nortasun politiko*en ekoizpen prozesua ematen da.

Ideologia kontzeptuaren ibilbide historikoa:

- Hastapenak Destut de Tracy filosofo-psikologo frantsesaren eskutik heldu ziren, 1801ean. Haren esanetan, ideologia "ideien zientzia" zen. Planteamendu hau zientzia modernoak sortzen ari ziren momentuan egin zuen, ideiak modu neutral batean aztertu ahalko balira bezala.
- Marxek ideologia "kontzientzia faltsu" bezala definitu zuen, menderakuntzarako mekanismo gisa, alegia. Hark salatu nahi zuen sistema hegemonikoak nola erabiltzen zuten ideologia zapalkuntza sistema ezkutatzeko. Dena den, berak ere ideologia erabili zuen dominazio sistema horren aurka borrokatzeko.
- Ideologiaren elezahar beltza (kondaira beltza): Zientzia Politikoen alorrean, ideologiak gero eta fama txarragoa zuen. IIMGren ostean, Zientzia Politikoei ideologiak gatazkak sortu eta bakea apurtzeko soilik balio zutela esan zuten:

irakurketa neokontserbadorea. Hayek “El camino de servidumbre”, edozein ideologiak extremismo eta totalitarismora daramala dio.

- Daniel Bell ideologiaren amaieraz mintzo zen eta Fukuyama “historiaren amaieraz”. Honekin kapitalismoaren garaipenari egiten zioten erreferentzia; esanez, demokrazia liberaletik haratago soilik totalitarismoa existitu daitekeela.
- Gaur egun, mendebaldeko gizarteetan, hiritar gehiengoaren joera politikoa XVIII.m amaiera eta XIX.m hasieran sortutako korrante ideologiko batzuetan oinarritzen da. Nagusienak: liberalismoak, kontserbadurismoak, sozialismoak, anarkismoak, faxismoak, nazionalismoak, feminismoak ...

Kultura politikoak, objektu politikoarekiko taldeek duten orientazio kongitibo, afektibo, ebaluatibo (eta abarrari) egiten dio erreferentzia. Horretarako, dinamismoa, proselitismoa eta filosofia politiko zein teoria politikoei erreferentziak erabiltzen dira. “Armategi elaboratua” edo “egitismo, balorapen eta emanaldi multzo bat”.

Filosofia politikoak / teoria politikoa / ideologiak

Marxen adibidea baliatuz

- Filosofia politikoa: Marxen esanetan filosofiak ez du izan behar soilik mundua ulertzeko, berau eraldatzeko baizik. Hau teoria kritiko bat eraikitzekeo abiapuntua da.
- Teoria politikoa: Botereari egiten dio erreferentzia. Marxek, liberalen tranparen aurka, eskubide soilen aurka jotzen du, ez baitute sistema ekonomikoko produkzioak eragiten duen errealitatea aztertu nahi. Horrela, bere esanetan, ezinezkoa da errealitate ekonomikoa ongi aztertzea sistema produktiboak sortzen dituen harremanak aztertu gabe (zeina klase borrokan oinarrituko litzatekeen). Hau “Kapitala”n aztertzen du Marxek, Ekonomia Politikoaren Kritikan.
- Ideologia: Marx, aitzitik, ez zen teoriko hutsa izan, ideologia bat sortu zuen (“Manifestu Komunista”n). Honekin, ekintza politikoa antolatzea izan zuen helburu, proselitismo bidez (jendea erakarri, batu eta mobilizatzea). Izan ere, horixe da ideologia ororen helburua.

NORTASUN POLITIKOAK

(Identitate politikoak)

- Egonkortasuna ematen diete ideologiei
- Talde eta pertsonak lotu egiten ditu iragana, orainaldia eta etorkizunarekin.
- *Nortasun kolektibo*en analisia:
 - Aldaketa / iraunkortasuna
 - Batasuna / ugaritasuna
 - Gu / haiek
- *Nortasun politiko*ak:
 - Interesen arteko gatazka
 - Boterea
 - Legitimazioa
 - Komunitate politikoak
 - Menderatzea

Baliabideen urritasunak interesen arteko gatazkek sortzen ditu komunitate politiko batetan, eta botere gehien duen taldeak, legitimazio edo indarkeriaren bidez lortuko du gainontzekoak menderatzea.


- Taldeen tresnak, lehia horretan: ideologia politikoak lirateke.
- Castells: identitate kolektiboak.
 - Legitimazioa: sistemak osatzen eta ia konturatu gabe barneratzen dugun legitimazio identitatea.
 - Erresistentzia: mundu globalean erresistentzia identitate politiko itxiak eraikitzean datza Castellsen arabera. Globalizaziotik datorren guztia mehatxu bat dela pentsatuz. Exkluyentea da.
 - Identitate proiektua: beste identitate kolektibo mota bat litzateke, globalizazioaren konplexutasunaren aurrean, desberdintasunak barneratzen ditu etorkizunean proiektu politiko bat sortzeko. Inkluyentea da.

Nortasun politikoak eta ideologiak:

Esan dugunaren arabera, nortasun politikoak egonkortasuna ematen die ideologiei. Identitate politikoak, horrela, ideologia politikoek gainetik legoke.

Adibidea: anarkismoa, sozialismoa, komunismoa ... ideologiak dira, baina langile mugimendua litzateke horiek biltzen dituen identitate politikoak.

Identitate hauek sortuta, GU eta HAIK –en arteko bereizketa ematen da; hots, espazio eta erreferentzia talde bat behar izaten da besteengandik ezberdintzeko.



Nortasun politikoek ideologiei egonkortasuna ematen diete. Izan ere, beharrezkoa da identitate politiko hauen atzean giza talde bat egotea ideologiak sor daitezen. Era berean, identitate politiko hauek dira ideologiei egonkortasuna eta iraupena ematen dietenak.

Beharrezkoa da identitate politikoak / identitateengandik bereiztea:

- Identitate politikoek boterearekiko posizio bat hartzen dute; hots, sistema edo gizarte batean botere banaketaren irakurketa egin eta jarrera ezberdinak planteatzen dira.
- Modernitatean, identitate (politiko) bakarra hartzen zen ekintza politikorako: Marxismoak lana vs. kapitalaren arteko gatazkan langilea vs. burgesia identitateak bereizten zituen. Aitzitik, gaur egun, identitate anitz hartzen dira kontutan.

IDEOLOGIAK:

Gai honetan ideologia ezberdinak izango ditugu mintzagai.

- Modernitatekoak:
 - Tradizioa / modernitatea: liberalismoa, kontserbadurismoa
 - Lana / kapitala: sozialismoa, anarkismoa, komunismoa, faxismoa
 - Nazioa: kristianismo politikoa, nazionalismoa

- Posmodernitatekoak:
 - Zentrorik gabeko mundua: gizarte mugimenduak, eskuin mutur xenofoboa, fundamentalismoa, indigenismoa

Mendebaldeko gizarteetako hiritar gehiengoaren joera politikoak XVIII.m bukaeran eta XIX.m hasieran sortutako korronte ideologiko batzuetan oinarritzen dira. Korronte nagusiak: liberalismoak, kontserbadurismoak, sozialismoak, anarkismoak, faxismoak, nazionalismoak, feminismoak.

	Koharantzia	Presentzia	Hedapena	Indarra/Intensitatea
Liberalismo demokratikoa	Sendoa	Iraunkorra	Hedatua	Baxua
Sozialismo demokratikoa	Ahula	Iraunkorra	Hedatua	Erdikoa
Sozialismo utopikoa	Ahula	Esporadikoa	Mugatua	Altua
Komunismoa	Sendoa, ahultzen	Iraunkorra, baina orain zalantzan jarrita.	Hedatua baina orain mugatua.	Altua, baina indarra galtzen.
Kontserbadurismoa	Ahula	Iraunkorra	Hedatua	Baxua
Faxismoa	Ahula	Esporadikoa	Hedatua	Indartsua
Nazionalismoa	Ahula	Iraunkorra	Hedatua	Altua
Anarkismoa	Ahula	Esporadikoa	Mugatua	Altua
Fundamentalismo erlijiosoa	Sendoa	Esporadikoa	Hedatua	Oso altua
Feminismoa	Ahula	Areagotzen	Hedatzen	Definitu gabe
Ekologismoa	Ahula	Duela gubikoa	Hedatzen	Erdikoa, baina irabazten.

LIBERALISMOA

Bere momentuan oso ideologia aurrerakoa izan zen, monarkia absolutuen aurrean ordena politiko desberdina sortzeko beharretik jaio baitzen. Horrela, garai hartan ematen ari ziren aldaketei (klase berriak, industria iraultza ...) sostengu ideologiko, etiko eta politiko bat eman zien.

Europar ilustrazioan sortu zen eta frantses iraultza eta amerikar iraultzan eragina jaso zuen.

Liberalismoaren ezaugarri nagusienetakoak:

- Eskubide indibidualak: askatasun indibidualarekin lotuta (honekin azpimarratu egiten da norbanakoaren protagonismoa). Izugarrizko aldaketa izan zen eskubide hauek lortzea, aurretik zeuden eskubide urriak kolektiboak baitziren. Horregatik momentu horretan liberalismoa ideologia iraultzaile eta eraldatzaile bat izan zen.
- Norbanakoaren protagonista papera azpimarratzen dute liberalek, norbanakoren askatasuna balio gorena da. Gizabanako askeen arteko akordiotik komunitate politikoa sortzen da.
- Komunitate honen aurrerabidea ezin da programatu, gizabanako aske eta arrazionalen arteko kompetentziatik sortzen den berezko emaitza izan behar da. Interes tentsio honetatik guztiontzako onuragarria den oreka sortzen da. Kompetentzia honetan, aginte politikoez oinarritako arauak bermatzen dituzte.
- Liberalismoaren baloreak ondorengo hauek dira: askatasuna, tolerantzia, eremu publiko eta pribatuen arteko banaketa eta pluralismoa.
- Aipatu beharreko autoreen artean berriz ondorengo hauek ditugu: Locke, Adam Smith, Stuart Mill.

XIX. mende bukaeran, sektore liberal batzuek, Britainia Handian batez ere, kapitalismo industrial eta finantzieroak giza desberdintasun handiak sortzen zituela konturatu ziren, liberalismoak proposatzen zuen norbanako ekimen askea zentzu barik utziz. Beraz, industrializazioan, liberalismoak bere diskurtsoa egoera berrira egokitu behar izan zuen, galdera desberdinei erantzun ahal izateko. Geroztik liberalismo politikoaren korrante batzuk estatuaren interbentzioaren alde agertu dira kompetentzia ekonomikoaren ondorio kaltegarriak zuzentzeko; eta ondorioz, *liberalismo klasikotik* bi korrante bereiziko dira: *kontserbadorea* eta *progresista* (Bigarren hau da hegemonikoa egingo dena, horregatik hau da nagusiki liberalismo bezala ezagutuko dena).

Aipatutakoaren ondorioz, ideologiaren azterketan hiru liberalismo mota desberdintzen dituzte autore batzuek: klasikoa, kontserbadorea eta progresista.

- **Liberalismo klasikoa**

Arestian aipatutakoa litzateke. Hau da hasieran sortu zen liberalismoa. Honek zalantzan jarri zituen hainbat esparru (etika, erlijioa, gizartea, absolutismoa ...).

- **Liberalismo kontserbadorea**

Hemen ez dago helbururik. Gobernuan egon eta ahalik eta ongien gobernatzea da nahi dutena. Liberalismo klasikoaren bereizketaren ostean, itzalpean geratu zen apur bat.

- Liberalismoaren kontrako erantzun moduan jaio zen, gizarte maila pribilegiatuak (lurjabe nobleziak, eliza hierarkia) mehatxatuta sentitu zirenean.
- Abiapuntua giza komunitatearen nagusitasuna da; baina beraientzat giza komunitatea ez da akordio askeetatik jaiotzen, berezko organismo bizia da.
- Komunitate honen osagaiak ez dira indibiduoak, kolektiboak baizik: familia, herria, hiria, erlijio komunitateak, gremioak ...
- Erabile guztiek tradizioak errespetatu behar dituzte, hori baitute ordena sozialaren oinarritzat.
- Aginte politikoa hierarkiaren printzipioan oinarritzen da eta tradizioen errespetua bermatu behar du.
- Kontserbadurismoak ez du aurrerakuntzan konfiatzen. Horregatik, beraien ardura nagusia berrikuntza politikoak edo sozialak sortzen dituzten "gaitzak" ekiditea da.
- Gradualki, pentsamendu kontserbadorearen korrante nagusienek liberalismo ekonomikoa onartu dute. Estatuaren interbentzioaren kontra agertu dira arlo ekonomikoan, baina estatu indartsu bat defendatzen dute, hala nola, familia tradizionala defendatzeko, delinkuentziari aurre egiteko ...
- Kontserbatarismoa erlijioak bultzaturiko balioekin lotzen da, hala nola familia, giza sexualitatearen kontrola eta espazio publikoen kontrolarekin.

- **Liberalismo progresista**

Bereizketa eman zenean, liberalismo progresista hau nagusitu zen. Hegemonikoena gaur egun (?).

- Liberalismoaren alde ilustratua eta arrazionalista da. Erreforma sozialaren alde agertzen da eta justizia soziala bere gai garrantzitsuenetarikoa bihurtzen du.

- Arrazoian konfiantzen dute, ordena sozial bat lortzeko tresna gisa. Horrela, teoria politiko eta ekonomikoan oinarritzen da.
- Hauen esanetan, ongizate minimo bat ezinbestekoa da askatasun indibiduala ziurtatzeko eta merkatuak ez badu ziurtatzen Estatuak ziurtatu behar du eskuhartzearen bitartez.
- Gizabanakoak Estatu eta testuinguru baten ondorioak dira eta horren ondorioz Estatuak ardura bat du gizakion ongizatean.
- Gizabanakoa ez da subjektu aurre-politiko.
- Liberalismoa edo sozialdemokrazia?
- Autoreak: T. Paine eta Stuart Mill (klasikoak) eta Rawls.

SOZIALISMOAK

Liberalismoaren emaitzen (esplotazioa, desberdintasuna, bazterketa) kontrako erantzun moduan sortu zen sozialismoa. Abiapuntua honako hau izan zen: gizartean ongizate kolektiboa bermatzen duen garapen maila berrietara eramateko nahita ekin behar da.

- Sozialismoaren ustez gizakia berez gizaki soziala da, besteenganako erlazioetan definitzen baita (adibidez: nor zara?). Ondorioz, berdintasuneko harremanak bermatu behar dira eta menpekotasun harremanak desagertu behar dira.
- Ordena soziala ez da tradizioan eta konpetentzian oinarritzen, giza elkartasunean eta baliabide eta ondasunen berdintasunean baizik.
- Horregatik, aginte politikoaren esku hartzea derrigorrezkoa da hau ezartzeko.
- Esku hartze honen debateak mugimendu sozialista banatu zuen:
 - Batetik, proposamen hauek ezartzeko iraultzaren alde egiten zutenak
 - Bestetik, proposamenak gradualki abian jartze aldera, sistema politiko liberal demokratikoan parte hartzearen aldekoak
- Sortutako beste debate bat, ekonomiaren esku hartze publikoa izan da.
 - Batetik estatalizaio osoa
 - Bestetik, esku-hartze publikoa eta ekintza pribatua.

Ondorioz, Komunismoa eta Sozialdemokrazia sortzen dira. Kontserbadoreen pesimismo eta liberalen eszeptizismoaren aurrean gizakiarenganako konfiantza defendatzen dute.

KOMUNISMOAK

Sozialismoen baitan bereizi ditugun korronteez gain, komunismoa ere gehi geniezaieke.

- 1.- Sozialdemokrazia – SPD
- 2.- Sozialismo iraultzailea – Rosa Luxemburgo
- 3.- Komunismoa – Lenin

“Erreforma ala iraultza” eztabaidan, sozialdemokraziak demokrazia liberala onartzen du. Demokrazia modu ezberdinean ulertzen zuten sozialismo mota ezberdinek.

Komunistek demokrazia sustantiboa edo popularra defendatzen zuten. Kritika egiten zioten demokrazia liberalari (ez baitu klase banaketa ez du kontuan hartzen). Demokrazia definitzeko puntu klabea klase ikuspegia da. Proletargoa klase unibertsal bilakatu behar zen, horrela klase interesak desagertuz.

Komunismoa:

Komunismoa Karl Marx eta Friedrich Engelsek 1848ko Agiri Komunistan (Manifiesto Comunista) plazaratu zuten ideologia politikoa da. Helburu gorena, gizarte klaserik gabeko gizarte bat sortzea da, gizarte komunista.

- Karl Marxen teorietatik eratorritako planteamendu intelektual nahiz politikoei marxismo ere deitzen zaie.

Komunismoa Errusian gauzatu zen, eta honen bilakaera ez da teorikoa; errealitatean txertatuta baizik. Era berea, aipagarria da komunismo desberdinak garatu direla historian zehar, leninismoa, estalinismoa, espartakismoa, maoismoa...

Planteamendu ideal honen oinarri-oinarriak honako hauek dira, sinplifikazio handia eginaz:

- Proletalgoak bere egoeraren kontzientzia eskuratu, bere burua Alderdi Komunistan antolatu.
- Iraultza egin eta boterea eskuratzerakoan, proletalgoaren diktadura jarriko lukete indarrean.
- Benetako gizarte komunista lortu bitarteko garai honi sozialismoa deitzen zaio, non ekoizpen bitartekoak langileriak berak kontrolatuko bailituzke.
- Etapa honetan, kapitalismoak gizakiengan sortutako kontraesanak gaindituta, proletalgoaren diktadura eta bere tresna guztiak (Estatu sozialista, indar armatuak...) desegin eta gizarte komunista sortuko litzateke.
- Zapalkuntza, esplotazio eta alienaziorik gabeko gizarte aske eta perfektua.

ANARKISMOAK

Hauen esanetan, gizarte libre eta harmonikoa subjektuen arteko borondatezko akordioen bitartez sortzen dela diote. Horrela, aginteak ordena soziala apurtzen du eta honetan datza komunistekin daukaten desberdintasuna.

- Kohesio soziala indibiduo, talde, udala, kooperatiben... arteko borondatezko ituna eta elkartze librean oinarritzen da, ezin da lotura legeletan edo derrigortasunean sortu.
- Erakunde edo entitate hauek autogestionatu egin behar dira parte hartze zuzenarekin, hots, parte hartzaileek erabakiak hartzen dituzte kanpoko esku hartzerik gabe.
- Kideen berdintasuna bermatu behar da hierarkia eta lidergo pertsonalak ezabatuz.

Anarkismoa Espainian: 1910 CNT sortzen da eta garapen handia lortzen da, bai diktaduran (Primo de Rivera), baita II Errepublikan ere (4 ministro gobernuan).

- Ekintza zuzena (praxis) da defendatzen dutena.
- Ezaugarriak nagusiak hauek dira:
 - Antiautoritarismoa
 - Humanismoa
 - Ekintza zuzena
 - Elkar laguntza
 - Auto-eraketa
 - Indarkeria eta indarkeri eza
 - Pedagogia libertarioa.
- Eta autore garrantzitsuenak: Proudhon (anarkismo filosofikoa), Bakunin (ekintzarako estrategiak), Kropotkin "komunismo libertarioa", Max Stirner (anarkismo indibidualista)
- Gaur egungo oihartzunak: Hallowey, "Que se vayan todos", autogestiorako esperientziak (kontsumoa, lantegi okupatuak ...)

FAXISMOAK

(Berez ez dugu garatu)

Gizabanakoa komunitate nazionalan desagertzen da eta komunitate hau ordezkatzeko duen lider eztabaidea ezin izan menpekotasuna zor dio, hark komunitate nazionalaren patu historikoa interpretatzen duelako. Menpekotasun hau bortxa eta indarra erabiliz eman daiteke.

Liberalen eta sozialisten arteko enfrontamenduaren aurrean konponbide gisa aurkezten da.

- Gizabanakoa komunitate nazionalan desagertu egiten da, eta komunitate hau ordezkatzeko duen lider eztabaidea ezin izan mendekotasuna zor dio, bera baita komunitate nazionalaren patu historikoa interpretatzen duena.
 - o Mendekotasun hau bortxa eta indarra baliatu eman daiteke.
- Ordena politiko eta soziala, hierarkia "natural" batean oinarritzen da: masa eta elitearen artean, goi mailako arraza eta behe mailako arrazaren artean, gizona eta emakumearen artean ...
- Bortxa da politika jarduerarako baliabide nagusia
- Faxismoa guztiaren kontra doa; hots, ukazioz definitzen da:
 - o Parlamentarismoak, alderdi sistemak eta prentsa askatasunak nazioaren indarra ahultzen dutenez, kendu egin behar dira.
 - o Boltxebikeen aurka, sozialismoaren aurka eta kapitalismoaren aurka
- Horrela, estatu korporatiboa proposatzen du, totalitarismoa alegia.
- Mugimendu antikapitalista: ideologiaren elementu honek ez du kasik garapenik izan, ez teoriarik ezta (are gutxiago) praktikan ere. Nazien garaiko Alemanian garrantzitsuagoa zen, Mussoliniren Italia faxistan baino. Aldarrikapen antikapitalistak gizarte kapitalistaren joera sozioekonomiko batzuen zuzenketa proposatzen du, ez gehiago, eta burgesia txikiaren zein garapen kapitalistaren mehatxua jasaten duten nekazarien aldetik dator honakoa.
- Gaur egun: krisialdi ekonomikoa eta xenofobia ...

NAZIONALISMOAK

(Berez ez dugu garatu)

Ekintza politikoaren protagonista nazioa da eta gizabanakoak parte hartzen duten nazioaren arabera politikoki kokatzen dira: beraien garapen pertsonalerako aukerak komunitatearen eboluzio historikoarekin lotura estua dauka. Estaturik gabeko nazioa bukatu gabeko proiektua da.

- Ordena sozialaren oinarria batasun nazionalan oinarritzen da eta batasun honen kontra agertzen diren mehatxuak eragotzi egin behar dira.
- Mehatxu hauek beste nazio batzuk izan daitezke, edota barnean dagoen gutxiegoa (ikuspegi nazionalarekin bat egiten ez duena)
- Hauen esanetan, finkatze nazionala aurrera eramateko estatu propioa eduki behar da; estatu gabeko nazioa bukatu gabeko proiektu bat da.

Euskal Herriaren alde ekiten duen nazionalismoaz aritzeko, normalean, abertzaletasun terminoa baliatzen da.

Nazionalismo politikoa:

Nazio bat osatu nahi duten pertsonen eratzeko, bestelako ezaugarriak kontutan izan gabe.

- Herriaren nahia, borondatea eta identifikazioan dago gakoa; hots, funtsezko osagaia erkidegoaren kontzientzia bera da.
- “Zuk aukeratzen duzu”
- Akademikoki, teoria subjektibo eta boluntarista da.
- Lurralde nazionalismoa.

Nazionalismo kulturala:

Arraza, hizkuntza, historia, folklorea ... osagai bereizgarriak dira; eta horren arabera ezberdintasun kulturala da nazio nortasunaren oinarria.

- Ezaugarri objektiboak dira kontzientzia nazionala garatzen dutenak.
- Akademikoki, teoria objektibista eta tradizionalista da.
- Arraza nazionalismoa eta hizkuntza nazionalismoa.

INFORMAZIO GEHIGARRIA:

Ideologiaren bi familia nagusien bilakaera XX.mendean:

- **Liberalismo klasikoa:**
 - Liberalismo kontserbadorea, neokontserbadurismoa (Nozick, Hayek ...)
 - Liberalismo demokratikoa, sozialdemokrazia, Hirugarren bidea (Blair, Giddens ...)
 - Liberalismo erradikala edo progresista (Rawls ...)

- **Sozialismo utopikoa:**
 - Sozialismoa
 - Komunismoa
 - Anarkismoa
 - Sozialdemokrazia
 - ...

IDEOLOGIAK POSMODERNITATEAN:

1991ko ideologiaren krisia

- 1973tik aurrera neoliberalismoa, edota liberalismo sozialki atzerakoia, gailendu egin zen. 1991an Sobiet Batasuna erortzean, Fukuyama ideologiaren eta historiaren amaieraz mintzatu zen. Ideologiaren arteko lehia amaitu zela uste zuen eta, horrenbestez, edozein proposamen politiko demokrazia-liberalaren markoan egingo.
- Krisi honetatik komunismoa eta sozialdemokrazia atera ziren galtzaile. Eragile berrien erronka historiaren amaiera gainditzea da.
- 1968ko Pariseko maiatzean eragile politiko berri bat agertzen da: gizarte mugimenduak.

Ideologiak postmodernitatean

- Modernitatearen krisia: korrante artistikoetan eman zen aurrena, ondoren hedatu zen sistema politikora. Baloreen krisia: materialismotik postmaterialismora.
- Gerra hotzaren ostean, kapitalismoaren garaipena komunismoaren (eta sozialdemokraziaren) aurka. "Ideologiaren amaiera" eta "historiaren amaiera" -z, mintzo ziren Bell eta Fukuyama, hurrenez hurrez. Nazioarteko erakundeek ere Milurtekoko Helburuak ezarri zituzten pobrezia-ekin amaitzeko helburuarekin.
- Meta-kontakizunen bukaera: postmodernismoa eta postmodernitatea (modernitate likidoa Bauman, beranduko modernitatea, Giddens...). Lehen bazen gertaera guztiak orokorrean, osotasun batean, azaltzen saiatzen ziren teoria zein ideologiak. Adibidez, komunismoa, sozialismoa edota liberalismoa (bakoitza bere mundu ulerkerarekin) meta-kontakizunak dira. Alderdi politiko klasikoak meta-kontakizunetan oinarritzen ziren. Aitzitik, 60ko hamarkadatik aurrera, mugimendu ezberdinak sortzen dira kontakizun hau kolokan jartzen

dutenak: hippyen mugimendua, ekologismoa, feminismoa ... Hauek ez dute errelato homogeen bat. Partikularismotik mugimendu hauek gai ote dira diskurtso integral bat osatzeko?

- Globalizazioaren ondorioak: mugimendu globalen sorrera
- Bi ziklo mobilizataile:
 - o 60. hamarkadako: ez zen homogeenoa izan, herrialde ezberdinetan protesta arrazoi ezberdinak izan ziren: AEBetan eskubide zibilak eta Vietnameko gerraren aurkako mobilizazioak, Frantzia ikasle mobilizazioak, Alemanian mugimendu ekologistak, Hego Amerikako askapen nazionalen mugimenduak ... Sistema kapitalistak mugimendu hauek neutralizatzeko ahalmen handia izan zuen.
 - o 90. hamarkadako ziklo mobilizatailea: data garrantzitsua 1994eko altxamendu zapatista da, bigarrenik, 1999ko Seattleko globalizazioaren aurkako mugimenduaren hasiera litzateke.
- Modernitatea eta ideologia vs postmodernitatea eta identitatea? : Batzuen aburuz, modernitatean ideologiek ekimen politikorako zeukaten ahalmena identitatek ordezkatu dute gaur egun. Horrela, egun ekimen politikorako motorra ez da ideologia, identitate politikoak baizik. Puntu hau eztabaidan dago. Gizarte mugimenduak, eskuin mutur xenofoboa, fundamentalismoa, indigenismoa... alor identitarioa dute, baino ideologikoa ere bai.

GIZARTE MUGIMENDUAK: (Atal hau berez ez garatu)

- Gizarte mugimendua gatazka sozial edo politiko zehatz batetan jardura zehatz bat duen askotariko aktorea da, modu informalean eta sarean elkarrengaitan duena, nortasun kolektibo komun baten bidez (Diani, 1992)
- Gizarte mugimendu bat gizartearen oinarritzko aldaketa bat eragin, ekidin, eragotzi edo ezabatu nahi duen eragile kolektiboa da, jarraitutasunez jokatzen duena, integrazio sinboliko handiarekin eta rolen separazio-maila txikia izanik, eta ekintza eta organizazio modu aldakorrak erabiltzen dituen (Rachke, 1985)
- Gizarte mugimendu bat agintari politiko, elite eta aurkariekiko elkarrekintza jarraitu eta, gehienetan, gatazkatsu batean –eta nortasun kolektibo bera

izanik– publikoki, boterearen erabilera edo banaketa interes kolektiboen alde eraldatzea eskatzen duen banakoen, taldeen edota organizazioen arteko elkarreragite informalen sare bat da (Ibarra eta Letamendia, 2000)

FEMINISMOAK:

Egitura politiko, ekonomiko eta sozialak auzitan jartzen dituen ideologia.

- Aitzindariak: sufragistak (berdintasun feminismoa)

Patriarkatuarekin amaitzea da feminismoaren helburu gorena.

- Patriarkatua:
Belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren usadioak, ohiturak, tradizioak, familiar arauak eta giza ohiturak, ideiak, aurreiritziak, sinboloak eta legeak. Rol edo estereotipo sexualak definitzen dituzte ideologiaren bidez baina unibertsal edo natural moduan agertzen dira.
Historiako lehen dominazio eta subordinazio egitura, oso boteretsua eta iraunkorra; antzematen ez dena. “No se nace mujer, se llega a serlo” Simone de Beauvoir, El Segundo Sexo.

Feminismo motak:

- **Feminismo erradikala**
- **Ezberdintasunaren feminismoa**
- **Ekofeminismoa**
- **Klase feminismoa**
- ...

EKOLOGISMOA:

Ideologia ekologistak biodibertsitatea sortzen duen ekosistema multzotzat hartzen du natura.

- Sozialismoaren porrotaren ondoren, ordea, ekologismoak aurre egiten die kontsumismoari, neurrigabeko garapenari eta kapitalismoaren desorekei; alternatiba teknologiko eta ekonomikoak proposatuz.
- Korrante historikoak:
 - **Kontserbazionismoa**
 - **Ekologismo sozio-politiko**
 - **Deep Ecology edo ekologia sakona**

- Beste korrante batzuk:
Korrante hauek aberastu eta zabaldu egin dute mugimendu ekologista.
 - **Pragmatismo berritzaile eta liberalaren** jarraitzaileak: sistema bideragarri bakarra kapitalismoa da, eta sistemak berak ingurumenari egiten dizkion kalteei aurre egiteko interes publikoaren alde arautzea proposatzen dute.
 - **Ekosozialismoa**: diru eta lehiaketa legeak naturarekin bateraezinak direla deritzo.
 - **Muturreko ekologismoa**: zientziak eta teknologiak izandako rola kritikatzeko du.
 - **Ekofeminismoa**: maila berean kokatzen ditu naturak jasaten duen tratua eta emakumeek pairatzen duten patriarkatua.

ANTIMILITARISMOA ETA BAKEZALETASUNA:

Estatuaren militarismoaren kritika burutzen dute: militarismoa indarkeriaren monopolioa baino gehiago da; beste estatu eta nazioekiko harremanak ez ezik, barneko indar kritiko eta aurkarietako harremanak ere bitarteko militar, polizial, teknologiko, ekonomiko eta kulturalen inguruan antolatzen ditu.

- Gizarte mugimendu gisa Vietnamgo gerraren aurkako mugimendua (60.h). Irakeko gerran mugimendua global bilakatu zen.

Indarkeriari buruzko hausnarketa eta proposamen zehatzak dituzte, baita ekimen kolektiboetan ere: desobedientzia zibila.

NEOLIBERALISMOAREN AURKAKO MUGIMENDU GLOBALA:

Globalizazioaren ideologiari izena eman eta etsai bilakatu zuen. Boteretsuenak eta beraien erakundeak jarri zituzten jopuntuak (FMI, Munduko Bankua, G8 ...)

Hau 90.hamarkadan eratu zen, batez ere zapatismoaren eraginez (1994)

- Seattle eta Pragan (1999-2000) goi bilerak geldiarazi zituen. Ekintza globalak gauzatzen zituzten eta teknologia berriak erabili (Indymedia)
- Gerraren aurkako mobilizazio globala (2003). Sare sozialen garrantzia eta komunikaziorako modu berriak.

Mugimendu hau etsai komunak batzen du. Ordea, zein da proposamena? Zeintzuk dira alternatibak? (Munduko Foro Soziala).

Horrela, XXI.mendeko gizarte mugimenduen errebindikazio nagusia Demokrazia izatera heldu da.

SUMINDUAK, 15-M:

(Democracia ya manifestua)

- Lehentasunak: berdintasuna, aurrerapena, solidaritatea, kulturarako sartze librea, iraunkortasun ekologikoa eta pertsonen garapena, ongizatea eta poza.
- Oinarrizko eskubide batzuk gizarte guzteitan ziurtatuta egon beharko lirateke: etxebizitza, lana, kultura, osasuna, hezkuntza, politikan parte-hartzea, garapen pertsonala, eta bizitza osasuntsu eta zorionsua edukitzeko behar diren gauzetarako eskubidea.
- Demokrazia herritik etortzen denaren aldarria (demos herria; krazia gobernu); beraz, herriak izan behar du gobernuaren jabe.
- Gutxienean botere gehiago edukitzeko nahiak desberdintasuna, amorrua eta injustizia sorrarazten ditu; eta honek guk errefusatzeko dugun biolentziara garamatza. Zaharkituta eta naturaren kontrakotzat dugun modelo ekonomikoak sozietatea blokeatzen du. Baliabide guztiekin bukatzen duen egoera sortzen da, pertsona gutxi batzuk aberasten eta besteak gero eta pobreak uzten direlarik; kolapsora arte.
- Sistemaren xede bakarra gero eta diru gehiago izatea da, eraginkortasuna eta gizartearen ongizatea kontutan hartu gabe. Baliabideak xahutzen, planeta birrintzen, langabezia eta zoritarreko kontsumitzaileak sorrarazten.
- Herritarrok makinaria baten zatitxo bat gara, geure beharrei buruz ezer ez dakien gutxiengo bat aberasteko lan egiten dugunak. Anonimoak gara, baina geu gabe hemen dagoen ezer ez litzateke egongo, guk mugiarazten baitugu mundua.
- Iraultza etiko bat behar dugu. Dirua gizakiaren gainean jarri dugu. Geure zerbitzuan jarri beharko genuke. Pertsonak gara, ez merkatu-produktuak.

ESKUIN MUTUR XENOFBOA:

Modernitatearen faxismoarekin lotura zuzena du. Eta gizartearen konplexutasunari erantzuteko modua da. Sistema eta demokraziarekiko haustura.

Honen interpretaziorako, Manuel Castellsen nortasun kolektiboen teoria baliatuko dugu marko teorikotzat:

- Manuel Castellsen nortasun kolektiboen teoria:
 - Legitimazio identitatea
 - Erresistentzia identitatea
 - Identitate proiektua

- Eskuin muturraren elementu berriak:
 - Immigranteen aurkako xenofobia
 - Islamofobia
 - Alderdi populistak

FUNDAMENTALISMO ERLIJIOSOAK:

Erljioa eta boterearen arteko lotura historikoa izan da. Hauen proiektu politikoak doktrina erlijioso batetan du oinarria.

- Gaur egun protagonismo handiena:
 - Sionismoa
 - Fundamentalismo islamikoa
 - Fundamentalismo katolikoa (Europar) eta protestantea (AEB)

INDIGENISMOA:

Pentsamendu indigenista zaharra da, baina azken urteetan bultzada handia izan du Hego Ameriketako aldaketa politikoaren eskutik: zapatismoa, Bolivia, Ecuador ...

Normalean, *jatorrizko-herriak* izendatzen dituzte euren buruari erreferentzia egiteko; ez *etnia*.

- Lotura historikoa komunitatea definitzeko:
 - Arbasoen lurraekin lotura
 - Kultura
 - Hizkuntza
- Ekarpen ideologikoak:
 - Eskubide kolektiboaren defentsa
 - Demokrazia liberalaren mekanismo baztertua ikusaraztea
 - Natura eta lurra zaintzeko garrantzia zibilizazioa bizirauteko. Deshazkunde teoriak.
 - Bizitzeko eredu berriak: Teorías de buen vivir, gutxiagorekin hobe bizi.

3.gaila PROZESU POLITIKOAREN ERAGILEAK

Honako gaila oso lotuta joango da lehengo gailo ideologiari aferarekin, eta eragileek duten antolatzeko gaitasunaz mintzatuko gara. Hots, nola bilakatzen diren agenteak → agentzian. Logika indibiduala apurtu eta antolakuntza kolektiborako bidea.

- Antolakuntza horren baitan denetik dago (izan daiteke antolakuntza kolektibo ez politikoa: futbolzaleak). Ordea, guri interesatzen zaiguna antolaketa politikoa izango da.

ERAGILE POLITIKOAK

Historikoki, 3 eragile izan dira nagusi zentzu honetan (nahiz eragileak mistoak ere izan daitezken):

- 1. Alderdi politikoak**
- 2. Gizarte mugimenduak**
- 3. Interes taldeak**



gogoratu, dena den, hau Sztompkak egindako ikuspuntutik aztertu behar dela. Horrela, alderdi politiko oro testuinguru baten kokatu behar da, zeina prozesu soziopolitiko baten ondorio izaten den

ERAGILE POLITIKOEN EZAUGARRIAK: (Valles, 2000)

- Borondatezko elkarte izatea
- Haren egonkortasun erlatiboa: ez da denbora bat zehazten. Guk aztertuko ditugun eragile batzuk egonkorragoak (alderdi politikoak) dira bestetarik (interes taldeak) baino.
- Interesak eta helburuak dituen komunitatea baten existentzia: handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, baina sekula ez da izango pertsona baten interes hutsa. Komunitate horrek izango duen babesa handiagoa ala txikiagoa izan daiteke.

- Boterearekiko orientazioa izatea:

Kriesie – Movimientos sociales, perspectivas comparadas



Taula ulertzeko adibide baliagarriak:

- Botereari dagokionez, gizarte mugimenduek ez dute soilik boterean eragin nahi. Botere hori eraldatu nahi dute. Hots, demokrazia liberalean egiten den boterearen definizioa eraldatzea izango dute xede. Ez dute soilik aldaketa bat sustatu nahi, haratago doaz.
- Aitzitik, interes taldeek presionatzea lukete helburua. Zeinak abokatu on baten kontratazio bidez lortu ohi dituzten helburuak. Beraz, inolako aurredisposiziorik ekimen kolektiboa gauzatu edo barne demokrazia sustatzeko. Izan ere, helburua da, eragina izatea politika publiko jakin batean.
- Desafekzio politikoa hain handia denez eta horrek gizartearen desegitea dakarrenez (indibidualismoa eta abarraren ondorio). Horrela sortu ziren grupos intermedios

(AEBtako gizartea aztertuz). Proteger el capitalismo del propio capitalismo. La gente esta tan atomizada que ya ni defiende el sistema político. Kontrol soziala mantendu eta gizartea sistema politikoarekin entxufatuta mantentzeko helburua dute. Ez dira politikoak izango, baina kohesio soziala sustatuko dute: talde erlijioso kontserbadoreak, besteak beste. Espainian adibidez, abortoareen legearen eta autobus naranjaren atzean kokatuko lirateke (Neokon gisa).

EKIMEN KOLEKTIBOA:

EKIMEN KOLEKTIBOA AZALTZEKO TEORIAK:

1) HURBILKETA KLASIKOA

a. Portaera kolektiboa (collective behavior)

- Portaera kolektibo ez instituzionala, indarrean diren gizarte arau eta testuinguruari aurre egiten ahalegintzen da.
- Tentsioek eta gizarte etsipenek, norbanakoa ekintza kolektiboan parte hartzera bultzatzen dute.
- Ekintza hori bizi-ziklo bati jarraituz garatzen da; hor, masen ekintza espontaneoak, iritzi publikoa eta gizarte mugimenduak sorrarazten ditu.
- Ziklo horren baitan, mugimenduak komunikazio prozesuen bidez gertatzen dira.
- Portaera kolektiboaren ezaugarriak:

Izaera gainerakorra	Instituzioz aparteko osagaia
a) Jokabidea espontaneo da	a) Ekintzarako arauak ez ditu zertan kultura menderatzaileak zehaztu
b) Informala + ez egituratua, instituzioetako logikaren aurkakoa	b) Ez da konbentzionala + ez dator bat ezarritako arauekin
c) Bat-batekoa + nekez aurreikusi daitekeena	c) Arau berriak sorrarazten ditu

b. Gabetze erlatiboa eta c. Hautaketa arrazionala:

Gizarte mugimenduak fenomeno arrazionalak dira.

Gabetze erlatiboa:

- Gizarte aurreikuspen jakin batzuen (nahi edo desiratako etekinak) eta zilegitzat jotzen diren aurreikuspenen arteko tentsioak bultzatzen du ekimen kolektiboa. Frustrazioarekin erlazionatzen da.

Hautaketa arrazionala (rational choice):

- M. Olson
- Egoismoarekin erlazionatzen da. Egoismo partikularra eta mozkin ekonomikoak dira pizgarri selektiboak. Horrela, kalkulu pribatuak eta erabaki pertsonalak etekinen arabera burutzen dira.

2) BALIABIDEEN MOBILIZAZIOAREN TEORIA

Erakunde batzuen mobilizatzeko ahalmena aztertzeko

- Lehenengo teoria (AEB) → gizarte-mugimenduak “nola” sortzen diren azaltzen saiatzen da.
- Bigarren teoria (Europa) → “zergatia” justifikatzeko ahaleaginean murgiltzen da.
- Teoria honetan kontuan hartzekoak:
 - Enpresari mobilizazio eragileek” elkarre horiek sortu + zuzentzekoan duten garrantzia.
 - Ekintza liskartsuaren eraginkortasunari ahalik eta etekin handiena ateratzea ahalbidetzen duten barne-egiturak
 - Helburuak betetzeko moduari buruzko kalkulu kontzienteetan oinarritutako erakundeko plangintza baten ezaugarriak
 - Haiek iraunarazteko mekanismoak

- GM → hainbat faktoreen ondorioa = baliabide eskuragarriak + antolaketa-ereduak + ekintza kolektiboan parte hartzeko aukera

3) KULTURA-IKUSPUNTUA, SAREEN + GIZARTE-MUGIMENDU BERRIEN IKUSPEGIA

Teoria kulturalistak edo identitate kolektiboarenak. Europan garatu dira.

- GM (Diani) → “identitate kolektibo zehatz baten oinarriaren gainean eraturako eta gatazka politiko edo kulturarekin konprometitutako norbanako, talde edo erakundeen pluraltasun baten arteko elkarrekintzarako sare informaleen multzoa”
- Autore garrantzitsuenak: Alberto Melucci, Alain Touraine, Claus Offe, Mario Diani ...

4) IKUSPUTU BATERATU BATERANTZ

Honen arabera honakoak dira eragile politikoak aztertzerakoan aintzat hartzeko dimentsioak:

- Aukera Politikorako Egitura:
 - Testu-ingurunearen analisia: eragile kolektiboek nola jokatzeko duten aztertze eszenatokia aztertu behar da; hots, non planteatzen diren beraien proposamen, kritika eta abarrak.
 - Sistema politikoaren aukerak, partaidetzarako aukerak, aliatuen garrantzia, elite politikoak, ...

Ez da berdina gizarte mugimendu bat Espainian, Suitzan edo Hego Korean; sistemaren maila demokratikoa aztertu behar da.

- Mobilizaziorako estruktura : Nola antolatzen diren gizarte mugimenduak (barne egiturak, antolatzeko modu hierarkikoak edo horizontalak ...)
- Marko diskurtsiboak: Zer esaten duen GM horrek, zer diskurtso mota egiten duen.
 - Identitate kolektiboa, kultura, sinboloak,...
 - Errebindikazio zehatzak, sistemari kritika, erradikaltasun maila, ...
- Ekintzarako errepertorioak: estrategia mobilizatuakileak (grebak, indarkeria, desobediencia zibila,...)

ERAGILE KOLEKTIBOAK EZBERDINTZEKO:

	ALDERDI POLITIKOAK	INTERES TALDEAK	GIZARTE MUGIMENDUAK
BOTERE POLITIKOAREKIKO ORIENTAZIOA	Eskuratu, manelatu <ul style="list-style-type: none"> Hauteskundeen bidez boterea lortu 	Presionatu <ul style="list-style-type: none"> Eragina izatea lortu nahi 	Aldatu <ul style="list-style-type: none"> Demokrazia liberalak sortutako definizioa aldatu nahi Boterea gizartean dago, GMak botere hori eskuratu nahi
ALDERDIEKIKO HARREMANAK		Osagarria <ul style="list-style-type: none"> Interes taldeak alderdi politikoak iristen ez diren lekuetara iritsi 	Gatazkatsua <ul style="list-style-type: none"> Alderdi politikoak GMak kontrolatu nahi Autonomia mailaren ikuspuntutik → gauza ona
ERAKUNTZA	Hierarkikoa, formalizatua <ul style="list-style-type: none"> Hierarkia bat jarraitu Hierarkia hori → adostuta + formalizatuta 	Formalizatua <ul style="list-style-type: none"> Interes politikorik EZ Eztabaida politikoak, ez etikook Dena praktikoa 	Horizontala, formala, sarea <ul style="list-style-type: none"> Demokrazia liberalaren logika ordezkatzailerak eraldatu nahi
ORDEZKATZE BIDEAK	Hauteskundeak	Konbentzionalak	Ez-konbentzionalak <ul style="list-style-type: none"> Bare egitura egin nahi dutenean, gizarterik hartu ereduak Bare egitura → modu demokratiko + parte hartzaileetatik hartu
EKINTZA KOLEKTIBOA	Interes orokorrak bildu <ul style="list-style-type: none"> Interesak bildu + interes horiekin programa politikoa osatu Edozein kezka hartu programan sartzeko 	Interes sektorialak bildu	Interes/nortasun kolektiboak
ESTRATEGIA	Lehiakorra <ul style="list-style-type: none"> Logika/lehia elektorala Interes taldeak kontuan hartu 	Kooperatiboa <ul style="list-style-type: none"> Botere politikoa erabili bere helburua lortzeko Errepertorio klasikoak bereganatu beste ideologia batzuegatik → adib.: GM 	Gatazkatsua
AZKEN HELBURUAK	Sistemikoak	Asistemikoak <ul style="list-style-type: none"> Defendatzen dituzten interesak → ekonomikoak, moralak, etikook,... Ez sistemaren alde ez kontra 	Anli-sistemikoak (ez beti)

Ezberdintasunak:

- **Boterea**
 - Alderdi politikoak: Botere politikoa gauzatzen edo eskuratzen saiatu
 - Gizarte-mugimenduak: boterea aldatzen saiatu
 - Interes-taldeak: botere horren jabe diren haien erabakietan eragina izaten saiatu
- **Interesak**
 - Alderdi politikoak + gizarte-mugimenduak: Interes orokor eta zehaztugabeen (publikoak) arabera mugitu
 - Interes-taldeak: Interes zehaztuen (pribatuak) arabera mugitu normalean

- **Erakuntza/antolaketa**
 - Alderdi politikoak: hierarkikoa
 - Gizarte-mugimenduak: Horizontala/sare modukoa
 - Interes-taldeak: bi mutur horietako edozeinetan barnera daitezke, nahiz eta formalizaziorako joera izaten den presioaren ondorioz lortutako etekinak maximizatze aldera.

- **Ordezkatzea**
 - Alderdi politikoak: hauteskunde bidezko ordezkari-tza-irizpideen arabera antolatu
 - Gizarte-mugimenduak: deiera unibertsaleko + nortasun zeinu kolektiboko interpretazio-esparruen arabera
 - Interes-taldeak: haletako kideek azaldutako lehentasunen arabera

- **Estrategiak**
 - Alderdi politikoak: elkarren lehia hauteskunde bidez eta kanpainak antolatu botoak eskuratzeko
 - Gizarte-mugimenduak: Botere formalaren aurkako gatazkaren alde agertu normalean.
 - Interes-taldeek: Instituzioetako eragileetara bideratzen den lankidetzarako eta negoziatzarako oinarrizko estrategia azaldu (ezkutuko/agerikoa) → lobbying = erabakietarako benetako foroetan loturak egitea

ALDERDI POLITIKOAK:

Argi dago alderdi politikoak oso eragile garrantzitsuak direla. Historikoki, demokrazia liberalaren garaian kokatu behar dugu; zehazki, Ameriketako eta Frantziako iraultza politikoaren harira. Garrantzitsua da honakoa ulertzea, batik bat, hasierako alderdiak oso ezberdinak direlako gaur egungoekiko; hots, bilakaera bat izan dute.

Esan beharra dago alderdi politikoak gertaera modernoa direla, eta modernitateari buruz mintzo garelako hauei erreferentzia egiterakoan (ideologiak ere bai, gaur egungo ulerkeran bederen).

- Kontutan hartu behar dugu alderdi politikoaren bilakaera estu lotuta dagoela sistema politikoaren bilakaerarekin. Honek eragina izan du alderdi politikoaren analisi politikoan; herri bakoitzaren sistema politikoak baldintzatuta baitago hein batean. Hots, estrukturak eragina du eragile edo prozesuengan (baita alderantziz ere).

DEFINIZIOA:

Gizabanakoen interesak defendatzeko elkarte da, botere politikoa eskuratzeko, maneiatzeko eta bere egitarau politikoa aurrera ateratzeko barneko egitura hierarkikoa duena.

EZAUGARRIAK:

- Elkarte iraunkorrak edo egonkorak izatea (interes taldeak baino egonkorragoak)
- Tokiko egitura eta egitura nazionala izatea: ordezkariak leku guztietan edo presentzia hainbat lekuetan
- Boterea heltzeko eta eskuratzeko borondatea izatea: botoa eskuratu = botere politikoa eskuratu.
- Herriaren laguntzaren bila jardutea
 - o Gizartean dauden errebindikazioak identifikatu eta bereganatu, bere programa politikoan integratzeko (teorian); radar ona da jendea erakartzeko
 - o Desafekzio demokratiko: alderdi baten eta gizartearen arteko distantzia edo harremanari egiten dio erreferentzia; arazoa azken urteotan

FUNTZIOAK:

- Sozializazio politikoa eta iritziaren sormena
- Interes (partzial eta orokorren) egokitzapena: gaur egun zailtasunak sortu daitezke honekiko. Izan ere, interes taldeek sektore baten interesak soilik defendatzen dituzten arren; alderdiek ideologia jakin bat izan arren, interesak orokorrak direla esan beharra dute ezin baitzaie onartu bere interesak talde txiki batentzat soilik direla. alderdi abertzaleak har ditzakegu adibidetzat, baina bereziki klase identitatearekin. PNV da enpresarioen alderdia eta Ezker Abertzalea da langileona? Alderdiek ezin dute klase bakarrarekin identifikatu; sistema elektoralean onura izan dezaten. Halere, kontuz programa politikoan esaten dutena eta egiten dutenaren arteko tartearrekin. Hau aldatu egin da, duela urte batzuk Frantzian langile alderdia izatea azpimarratzea baitzen alderdi sozialistari garaipena ematen ziona. Orain, Macronek alderdi desideologizatua da. “Nola eskuratu, esanez, botere politikoa eta nola baliatu”.
- Elite politikoen erakuntza: hemen ere demokrazia ordezkatzailaren oinarria izan behar dugu aintzat; “zuk eman botoa eta guk egingo dugu egin beharrekoa”. Honek partaidetza politikoaren aurkako logika du.

- Herriaren eskakizunak bideratu
- Sistema politikoaren egonkortasuna eta indarketa

ALDERDI POLITIKOEN SAILKAPENAK: (Hau berez ez da ikasi behar)

- JATORRIAREN ARABERA

Alderdiak	Kontraesanak
Liberalak	Antzinako Erregimena
Kontserbadoreak	Frantziar Iraultza
Langileak	Sistema burgesa
Nekazariak	Sistema industriala
Erregionalistak	Zentralismoa
Kristauak	Laizismoa
Komunistak	Sozialdemokrazia
Faxistak	Gizarte demokratikoa
Burges Txikiak	Ongizate estuaren burokrazia
Berdeak	Produktibismoa
Feministak	Patriarkatua
Arrazistak	Multikulturalismoa

- OINARRIA + LEGITIMAZIOAREN ARABERA

- Alderdi tribalak/klientelistak
- Alderdi etnikoak, erlijiosoak, klase alderdiak

- BARNE EGITURAREN ARABERA

- Koadro alderdiak
- Masa alderdiak

- HELBURUEN ARABERA

- Ugazabeen alderdiak
- Klase alderdiak
- Ideologikoak

- INSTITUZIONALIZAZIO-MAILAREN ARABERA

- Instituzionalizazio indartsua → inguruneekiko autonomia handia + barneko zentralismoa
- Instituzionalizazio ahula → inguruneekiko integrazioa + barneko autonomia

- GATAZKA ARDATZEN ARABERA

IRAULTZAK	Nazionala	Industriala
Ardatzak	Gatazkak	Gatazkak
Lurraldetasuna	Erdigune-Periferia	Landa-Hiria
Funtzionala	Eliza-Estatua	Jabeak-Langileak

- **Erdigune vs. periferia** → zentralistak/erregionalistak/autonomistak/independentistak
- **Landa vs. hiria** → urbanoak + nekazariak (indigenak)
- **Jabeak vs. langileak** → langileen alderdiak + jabeen/burges alderdiak

BILAKAERA HISTORIKOA:

Hasieran sortu ziren alderdiak “koadro alderdi” gisa sortu ziren. Izan ere, esan genuen bezalaxe, sistema liberalari lotuta sortu ziren alderdiak. Gerora, testuinguruaren arabera, hedapen ezberdina izan dute.

- **Koadro alderdiak**

- Estatu liberalari lotuta
- Klientelismoa eta eliteen tresna: bozka egiteko, adibidez, baldintza minimo batzuk betetzea derrigorrezkoa zen (gerora ordezkatzeko sistema hedatu zen, pixkanaka).

Ordezkaritza mugatu honetan, oraindik, bi munduen arteko logikak trabatzen ziren. Alde batetik modernitatearen aurretikako munduaren ikuskera atzerakoia eta bestea, liberalismoarekin inposatu zen modernitatearena. Hemen ere, ideologiek baliatu genuen eskema (sistema politikoaren eta industriaren iraultza) baliagarri izan daiteke. Horrela, esan genezake hainbat lekutan lehen ordezkaritza sistema horretatik langile klasea ez zela sartzen. Gerora, egoera orri erantzunez, masa alderdiak sortzen hasi ziren.

- **Masa-alderdiak**

- Sufragio unibertsalarekin bat
- Kapital-lana antagonismoa eta klase sozialen protagonismoa (Marx, produkzio harremanak)
- Identitate politiko indartsuak
- Afiliatuen tasa altua

Ad) lehen alderdi sozialistak Europan 1880 hamarkadan sortu ziren. Iraultza industrialak eman izanak eragin nabarmena izan zuen horretan. Izan ere, arlo ezberdinetan langileen mugimendua antolatzen hasi zen. Ekintza politiko hau fronte ezberdinetan antolatu zen: alderdi politikoak, sindikatuak eta mugimenduak, besteak beste (alderdi sozialistak, komunistak, lehen eta bigarren internazionala).

Alderdiak horrela identitate kolektibo bat sortzen zuen (garrantzitsua egungoarekin alderatzeko). Funtzio hau galdu egin da gaur egun, bozkak irabazteko ez baita beharrezkoa identitate politikoa sortu eta elikatzea.

- **Eskura-oro (cath-all)**

- Klaseen artekoak: alderdi sozialdemokratek ez dute langileen bozka soilik nahi izango, adibidez (interklasismoaren sustapena). Kontraesan hauen kudeaketa komunikazio politikoari esker bultzatzen da. Askoren esanetan, desafekzio demokratikoaren iturri izan daiteke.
- Gai guztietarako diskurtsoa izatea: Garrantzitsua eta bereizgarria da (presio talde eta gizarte mugimenduengatik). Izan ere, alderdiek iritzia izan behar dute denetarako. Halere, afera batzuentzat iritzi finkoa badute ere, beste iritzi batzuk era espontaneo batean sortzen dira. Hori gertatzen denean gatazkak sor daitezke (alderdiaren gainontzeko kideek ez baitute aurrez adostasunik adierazi).

- Klase politikoen sorrera: Aurrekoaren eraginez, sortu eta indartu egin da klase politiko edo elite politiko berri baten sorrera (kasta). Alderdi politikoez beharrezko dute talde txiki bat ardura publiko eta politikoak betetzeko. Elite hori konpaktoa izatea beharrezkoa da, identitate kolektibo handikoa izan dadin. Hau, adibidez, Madrilgo PPn gaizki dabil (Cifuentesi gertatutakoa barne borroka baten ondorio izan da).

Ezkerreko gainbeherak eta langile klasearen desitxuraketak eragina da azkeneko hau, 80.hamarkada inguruan. Hein batean, sailkapen hau langile klasearen aldaketa historikoekin lotu dezakegu. Alderdi hauen sorreran jendeak “erdi mailako klasekotzat” zuen bere burua, ez zuten klase zehatz batekin identifikatzen beren burua. Horrela, alderdiek horretara doitu behar izan zuten.

Gerora alderdi politikoen krisi edo gainbehera iritsiko da.

BILAKAERA HISTORIKOAREN ONDORIOAK:

- Afiliazioaren jaitsierarekin parte hartze politikoen aukeren murrizketa
- Klase politikoen garrantzia (la casta)
- Alderdi politiko eta gizartearen arteko lotura soilik hauteskunde kanpainen aktibatzen da
- Alderdien finantziario sistema ilunak (ustelkeria)
- Funtzio programatikoa galdu: proposamen berririk ez
- Komunikabideen garrantzia: politika mediatikoa eta marketing politikoa
- Oligarkiaren burdinazko legea (Michels): alderdi politikoen arteko antzekotasunen areagotzea eta baseen kontserbadurismoa → honek esaten du alderdi politikoez kontserbadurismoa joera dutela (sisteman sartzen bazara, kritikoa izan arren, sistemaren parte zara eta arauak onartzen dituzu). Alderdi politikoko militanteek zuzendaritzatik gertu egon nahi dute. Ondorioz, funtzionamenduaren baitan, ez dira jarrera kritikoa ondo onartzen. Horrela, alderdi kritikoez zaindu behar dutena iritzi bateratua izatearena da. Iritzi diskordante bat izateak, kontuz ibiltzera behartzen gaitu. Azkenean, joera da, alderdi politikoetan bakoitza bere alde ideologikoan kontserbadorea izatea, beldurra izatea iritzi ezberdinak jasotzeko. Kontserbadurismoak gauza berriei beldur izateari egiten dio erreferentzia.

PRESIO edo INTERES TALDEAK:

- Interes taldea edozein izan daiteke, ordea presio talde bilakatzen da dagoeneko jardun aktibatua duenean.

Bi terminoak maiz nahastu egiten dira, baina goian aipatutako ezberdintasun hori aintzat hartzea garrantzitsua da.

- Interes taldeak (gizartean), presio taldeak (eremu politikoan) eta lobbiak (presioa egiteko modu zehatz bat).

DEFINIZIOA:

“Edozein talde da, jarrera bat (edo gehiago) partekatuz gizartearen beste taldeen aurrean errebindikazio batzuk egiten dituen, posizio komun horiekin egokitzen diren portaerak finkatu, areagotu edo mantentzeko.”

“Gobernuan beren interesen alde eragina izan nahi duten taldeak dira. “

EZAUGARRIAK:

- Ez dira hauteskundeetara aurkezten
- Ez dute botere politikoaren zuzeneko administrazioa egiten
- Ez dira funtzionamendu demokratikoetan oinarritzen

PRESIO TALDEEN SAILKAPENA:

Irizpideak:

- Interes ekonomiko espezializatua
- Interes publikoa

Aldagai honen arabera:

- 1) Enpresari eta inbertitzaileen erakundeak (business associations)
- 2) Sindikatuak * (edo gizarte mugimenduak)
- 3) Klase ertaineko profesional taldeak eta korporatiboak (professional associations): arkitektoen elkargoak, medikuen erakundeak ... elkartzeko jarduera lana da.

- 4) Sustapen taldeak eta ekimen pribatuzko gizabidezko erakundeak (public interest groups): hauek apurtu egiten dute interes ekonomiko eta profesionalen defentsa (partikularrenak); interes publiko edo orokorrak babesten dituzte, oinarrian balore edo ideologia bat izaki.
- 5) Elkarte politikoak (instituzioak): hemen, adibidez, Udalbiltza. Ordezkaritza publikoek osatzen dute, presentzia bat izateko.

INTERES TALDEAK ZIENTZIA POLITIKOAN:

- PLURALISMOA
 - 1) Interes taldeak ororen ongia defendatzeko lagunen elkartek dira
 - 2) Partaidetza borondatezkoa da, eta motibazioa lortuko duten ongi publikoa da
 - 3) Arrakasta partaideen inplikazioaren arabera
- NEOKORPORATIBISMOA
 - 1) Erakunde garrantzitsuenek ordezkatzeko estrategia "ez lehiakorrak" garatzen dituzte
 - 2) Erabaki politikoan eragina izatea laburra geratzen da, politika publikoen fase guztietan eta ekimen ezberdinak (demokratikoak / legalak / etikoak)
 - 3) Industrializazio garaian (multinazionalak) kolaborazio iraunkorrak sortzen dira Estatu eta korporazio artean
- INSTITUZIONALISMO BERRIA: policy network + gobernantza

GIZARTE MUGIMENDUAK:

DEFINIZIOA:


"Gizarte-mugimendua gatazka sozial edo politiko batean jarduera zehatz bat daukan askotariko aktorea, modu informalean eta sarean elkarrengaitan duena, nortasun kolektibo komun batekin."

"Gizarte-mugimendua gizartearen oinarritzko aldaketa bat eragin / ekidin / eragotzi / ezabatu nahi duen eragile kolektiboa da, jarraitasunez jokatzen duena, integrazio sinboliko handia eta rolen separazio-maila txikia izanik, eta ekintza eta organizazio modu aldakorrek erabiltzen dituen."

“Gizarte-mugimendua banakoen / taldeen / organizazioen arteko elkarreragite informalen sarea da; agintari politiko, elite eta aurkarietako elkarrekintza jarraitu (eta, oro har, gatazkatsuan), nortasun kolektibo bera izanik, publikoki, boterearen erabilera edo banaketa interes kolektiboen alde eraldatzea eskatzen duena.”

GIZARTE MUGIMENDUEN LOGIKAK:

Gizarte mugimenduak botere-politikan murgilduta daude nahitaez.



Adibideak:


- Autonomiaren logikari erantzuten dion adibide argi bat gaztetxeena da. Bertan autogestioa da aldarri. Era batean, sistema hau gustatzen ez zaielako eta sistematik askatzen den gune bat sortzea da helburu. Nafarroan sortu ziren komunetan (Hegoa), gehien garatu zen politika nortasun politika zen, autonomiarena. Honek, den den, ez du esan nahi gainontzeko aferek berdin zitzaienik. GM baten parte diren kide ororen arteko lotura identitate kolektibo batek sortzen du.
- Eragin politikaren kasuan: pentsionistek, batzean, presioa eragiten dute politika publiko bat alda dadin (kasu honetan pentsio politika). Hots, beraiek eragiten dute presio

bat bestetzuek alda dezaten. Hau da langile mugimenduak beti erakutsi duena. ("Variaciones de la neoliberalización" liburuan azal daitezke paisai instituzional ezberdinak. Horrela, adibidez, PNVk politika sozial batzuk onartzen ditu eta PPK ez, biak eskuinekoak diren arren). Logika sistemikoaren baitan, hots, sistemak onar dezake.

- Azkenik, botere politikari dagokionez: sistemaren parean jarri, esplizituki, eta gatazka sortzea. Ordea, logika sistemikotik at kokatuko lirateke hemengo errepertorioak. Manifestazio potenteetatik hasita borroka armaturaino topa ditzakegu hemen. Era berean, boterea bera ulertzeko beste modu batzuk egon daitezkeenaren aldarria ere egiten da honen bidez.

Kontua da ekimen kolektiboaren analisi honetan, GM orok hiru politikak burutu ohi dituztenaren ondorioa heltzen garela. Ordea, estrategikoki edo koitunturalki, bata edo bestean azpimarratzen dute.

GIZARTE MUGIMENDUEN DEMOKRATIZAZIOA:



Botere-politika	<ul style="list-style-type: none"> • "Gurea egin, haiek egin ez dezaten" • Betoa/alternatiba, liskarra/protesta • Gizarteak Estatua menpeko → gizarte zibilaren autonomiarik ez 	DEMOKRATIZAZIOA
Eragin-politika	<ul style="list-style-type: none"> • "Guk eragin haiek aldatu daitezen" • Gizarte zibilaren autonomia + eragina gizarte politikoa • Erradikalismo automugatua, liskar irekirik ez 	AUTONOMIA
Nortasunaren politika	<ul style="list-style-type: none"> • "Guk geure izaerari eutsi, haiek egin dezatela nahi dutena" • Gizarte zibilaren autonomia • Identitatearen aldarikapena • Liskar mugatua • Gizarte zibilaren aldaketarako lekukotasun garbia 	LOGIKA SISTEMIKOA

ANTAGONISMO (BORROKA) AGONISTIKOAREN LOCUS-A

Demokrazia liberala aztertzeko modu bat da. Tentsio demokratiko liberalari edo gatazkari buruzkoa. Demokrazia liberalean lau modu daude demokraziaren zentzuak ulertzeko:

1) Demokrazia agregatua (Schumpeter)

Prozesu demokratikoen helburua, hiritarren lehentasunak eskatu eta elkarrekin batzea izango da; gizarteak zein politikak hartu behar dituen zehazteko

- Parte-hartze demokratikoaren oinarria: bozketa
- Boto gehien lortzen dituen politika inplementatzen da
 - o Demokrazia minimoa → tentsio minimoa bilatu
 - o 2 alderdi badaude → sistema ondo doa eta ez da ezer aztertu behar
- Ikuspuntu oso liberala

2) Demokrazia deliberatzailea (Habermas)

Hauteskundeetan bozkatzeaz gain, herritarren inplikazioa beharrezkotzat jotzen da.

- Erabaki demokratiko bat legitimoa izateko, deliberazioa behar da (ez bakarrik bozka)keta)
- Horretarako, sistemak deliberatzeko guneak sortu behar ditu
- Ekonomiaren inbasioa gelditu behar politika defendatzeko; hots, demokrazia minimoaren kontra egiten da hala
- Tentsio demokratikoa handitzen
- Negoziazioa bilatu gatazketan

Gizarte demokratikoaren helburua kontsentsua/adostasuna sortzea izango da.

- Kontsentsua soilik posiblea da pertsonak bere interes partikularrak alde batera uzten badituzte eta izaki arrazionalak bezala pentsatzen badute

Helburu nagusia pertsonen berdintasun ekonomikoa eta soziala erdiestea izango da.

3) Demokrazia agonistikoa (C.Mouffe edo Apent)

Balore jakin batzuk partekatzen dituzten aurkarien arteko gatazka gisa ulertzen da, eta bakoitzak balore horiek era desberdinean interpretatzen ditu.

- Demokrazia deliberatiboaren kritika burutuko du (aurrera pausoa dela onartu, baina beharra asetzen ez duela azpimarratuta).

Gatazka politikoko forma batzuen alde potentzialki positiboak nabarmenduko dituzte

- o Gatazkarako espazio iraunkor baten existentzia onartu. Gatazka beharrezkoa dela esaten dute: eragile berriak azaltzeko, demokrazia aurrera ateratzeko eta gauzak aldatzeko.
- o Gatazka hau positiboki onartu eta zuzendu daitekeela erakutsi nahi dute

Logika gatazkatsua jarraitzen dute. Hots, gatazka sistema demokratiko liberalean integratu nahi dute.

Horrela:


- Bestea ez da etsai gisa ikusten, bere postura legitimoa delako → *Aurkaria* izango da.
 - o Aurkarien arteko errespetua
 - o Garaipena eta porrota ez dira funtsean garrantzitsuena: gatazka bera da garrantzizkoa

4) Demokrazia antagonikoa (Smith)

Hemen bestea *etsai* gisa ulertuko da, eta batak ez du bestearen existitzeko eskubidea bera ere errespetatuko.

- Bestearekin amaitu nahi da, etsaia akabatzea da helburua. Gatazka irekia izango da, gerra.

Eskakizunen aurrean sistemaren erantzuna errepresioa bada, adibidez, gera egin behar da. Hauen esanetan ez dago baliabiderik sistema demokratizatzeko.



4.gaia POLITIKA PUBLIKOAK ETA GOBERNANTZA: POLITIKA EMAITZA GISA

POLITY vs. POLITICS vs. POLICY

- Polity: politika, botere gisa eta era orokorrean ulertuta.
- Politics: politikariak, jarduera profesionala instituzio publikoetan. Horrela, maila altuko teknikariak ere kontzeptu honen baitan kokatzen dira.
- Policy: politika emaitza gisa, politika publikoak. Gobernantzarekin erlazionatuko genukeena.

POLITIKA PUBLIKOAK:

Instituzio publikoak egiten edo egiten ez dutena: eskuhartze (eza).

DEFINIZIOA:

Politiko publiko bat: gobernu baten erabakiak dira (egin edo ez egin), egoera bat edo arazo publikoari erantzuteko.

- Hau, politika prozesu gisa ulertuta, zatitxo bat soilik litzateke.

ELEMENTUAK:

- Egoera, errealitatea bat: hemen koka genezake, besteak beste, afera bat definitze hutsak izan dezakeen eragina: immigrazioa “arazo”
- Botere publikoa
- Erabakia: esku hartzea ala ez esku hartzea
- Tresna ezberdinak

Aipagarria da gizarte mugimenduek orokorrean honakoak aldatzeko egiten dutela lan (nahiz ez den beraien helburu bakarra, M8). Alderdi politikoek ere, honakoa dute helburu.

TESTUINGURU BERRIAK: ONGIZATE ESTATUA ETA KRISIA

- Estatuaren handitzea eta gastu publikoaren hazkundera (orain murrizketa)
- Erregulazio eta gobernu arauen ugalketa
- Publiko eta pribatuen mugen lausotzea
- Gobernu eraginkortasuna legitimazio gisa
- Ongizate estatuari politikagintzatik egindako erasoak


POLITIKA PUBLIKOAK: TRESNAK

- 1) Merkatuan esku hartzea
 - a. Desregulazioa
 - b. Legalizazioa
 - c. Pribatizazioa
 - d. Merkatu berriak sortzen
 - e. Merkatu baten simulazioa
- 2) Sustatzen:
 - a. Subsidioak
 - b. Zergak
 - c. Bonuak
 - d. Kenketa fiskalak
- 3) Portaera erregulatzen
 - a. Agindu
 - b. Ekintza debekatu
 - c. Informazioa ematera behartu
- 4) Zerbitzu bat ematen
 - a. Kudeaketa zuzena
 - b. Zeharkakoa
- 5) Aseguru publikoa hornitzen
 - a. Kotizazioa behartu
 - b. Kaltetuei laguntza bat eskaintzen
 - c. Erosi edo soberakinak metatzen

POLITIKA PUBLIKOEN PROZESUA:

- 1) Arazoaren identifikazioa eta definizioa
- 2) Konpontzeko aukerak azaldu
- 3) Aukeraren bat hautatu
- 4) Hautatutako aukeraren ezarpena
- 5) Lortutako emaitzen ebaluaketa

Ziklo bat da, errepikatzen dena.



- Ziklo honen baitan (politika publikoen prozesuan) gaur egun arreta handiena erabaki publiko horien gauzapenean jartzen dugu. Izan ere, sistema ekonomikoak muga asko ditu erabaki horiek atzera botatzeko.

FASEAK PAUSOZ PAUSO:

1) Arazoaren definizioa:

- a. Zein da arazoa? (hemen dagoeneko elementu ideologikoa sartzen da, "arazo" deitze hutsarekin). Bilbi, Sanfran vs. Udala
- b. Zeintzuk dira dimentsioak?
- c. Zeintzuk dira kausak?
- d. Nori eragiten dio?
- e. Ze bilakaera izango du?

2) Konpontzeko aukerak azaldu:

Eztabaida dago elementu tekniko eta ideologikoen artean. Zein nagusitu behar den.

- a. Zein da plana arazoa gelditzeko?
- b. Zeintzuk dira gure helburuak eta lehentasunak?
- c. Helburuak lortzeko bestelako aukerak aztertu
- d. Zelako arriskuak dauzka aukera bakoitzak?
- e. Arrisku gutxi eta etekin asko

3) Aukera bat hautatu

- a. Bideragarria da hautatua tekniko eta politikoki?

4) Aukeraren ezarpena:

- a. Zeinek du ezarpenaren ardura?
- b. Zelako baliabideak erabiliko ditugu politika ziurtatzeko?

5) Ebaluaketa:

- a. Helburuak lortu ditugula ziurta dezakegu?
- b. Zein irizpide hartu behar dira kontutan politika epaitzeko?
- c. Mantendu, kendu edo egokitu behar da?
- d. Politika eta emaitzak bidezkoak izan dira?

AGENDAN SARTZEA:

- Errealitate sozialak, agenda sistemikoa edo soziala eta agenda politikoa edo instituzionala.
- Bottom-up eta up-down
- Eragile klasikoak: alderdiak, giza mugimenduak eta interes taldeak (gobernantza)
- Komunikabideen garrantzia informazio gizartean
- Arazoa definitzeko hainbat afera ideologiko

ERABAKIAK HARTZEA:

- Eredu klasikoa: agenda instituzionalean sartu eta gobernuak erantzun.
- Bi korrante:
 - Arrazionalista
 - Inkrementalista
- 90.hamarkadatik kontzeptu berri bat: GOBERNANTZA
- Nork eta non erabakitzen da?

GOBERNANTZA

DEFINIZIOA:

Gobernatzeko modu berri bati egiten dio erreferentzia (ez soilik erabakiak hartzeko modu bati). Horrela, eredu berri honetan, beharrezkoa da Estatuaren eta gizartearen, arlo publiko nahiz pribatuko eragileen arteko elkarrekintza eta lankidetzak.

- Eredu klasikoaren mugei, globalizazioari eta gizartearen konplexutasunari aurre egiteko sortua.
- Publiko eta pribatuaren arteko mugak lausotzen dira.
- Agenda neoliberallean sortuta baina korrante ezberdinak barnebiltzen dituena.

Gobernantzaren esentzia ez da merkatuaren esentzia, desprivatizazioa, botere publikoaren galera edo abarra. Hori gobernantza historikoaren elementua litzateke (gaur egun dagoen gobernantza). Ordea, gobernantzarako beste irudi, ideia eta abarra legoke (teoria kritikoa).

Eztabaida hau nahiko nabarmena izan da azken urteotan.

- Batzuen esanetan gobernantza kontzeptua bera ahaztu behar dugu. Zentzu kritiko batetik.

ABANTAILAK:

- Administrazio publikoak eta merkatua ailegatzen ez diren tokietara ailegatzeko aukera
- Mahai berean politikaria eta entitateak biltzen dira: informazioa eta erabakitze gaitasuna hobesten du.
- Eragileen arteko negoziazioak politikaren onarpena handitzen du
- Errekurtso gehiago daude eredu publiko, pribatua eta soziala aintzat hartuta
- Eraitzen kontrola eta ebaluazioa errazagoa egiten da
- Gobernuak gizartearen auto-antolakuntza behar du.

GOBERNANTZA MOTAK:

Hori hobe ulertzeko **governantza moten** diapositiba:

- ***Autogovernantza:***

(Self-governance): Erakunde sozialek bere burua gobernatzeko gaitasuna modu autonomoan. Nolabait autogestioaren edo autonomiaren logikari erantzuten dio.

- ***Governantza hierarkikoa:***

(Hierarchical governance): eragile berriak sartu baina Estatuaren kontrol eta pisu handia. (jessop = metagovernantza). Governantza politikoki ondo zuzenduta.

Hau gobernatza demokratikotik bereizteko: Gobernua barneratzen dituen eragileetan desegiten da, erabakia hartzeko prozesua burutu ostean. Aldiz, hierarkikoan, bere boterea mantentzen du esanez denon artean parte hartuko dutela baina berak mantenduko duela "azken hitza".

Honen atzean eztabaida potolo bat dago.

- ***Merkatuaren governantza:***

La gobernanza realmente existente. Estatuak protagonisoa galtzen du eta merkatuko eragileek dute kudeaketa. (Market governance).

- ***Governantza demokratikoa:***

Eragileen arteko kolaboratzeko antolatutako mekanismoak, protagonista garbi bat izan gabe. (Network governance). Tokiko gobernantzan adibide batzuk topa ditzakegu, baina bestela zaila da (eskala handiagoan gobernantza demokratikoa zailagoa da identifikatzen).

- Demokraziaren kalitatea da kezka nagusia → kontzeptu garrantzitsua, zein indikadore baliatzen diren ere garrantzitsua da.
- Eragile pribatuak: merkatu eta gizartearenak

- Mekanismo parte-hartzailak bultzatu (aurrekontu parte-hartzaileak, kontsultak, prozesu deliberatiboak ...)
- Erronka nagusia: mekanismo eta prozesuen logika gainditu eta politika publikoak modu parte-hartzailean eraiki: politika publikoaren fase guztietan eragile guztiak prozesu erabakitzailean.